

Eskola orientazio sexualaren aurrean



«Sexu aniztasuna eta familia berriak»

Hezkuntza proiektuari buruzko txostena

Amparo Villar Sáenz

Inmaculada Mujika Flores



Eskola orientazio sexualaren aurrean

«Sexu aniztasuna eta familia berriak»

Hezkuntza proiektuari buruzko txostena

Egileak: Amparo Villar Sáenz
Inmaculada Mujika Flores

:

Aldartek argitaratua
1. edizioa irailak 2009-09-21 ©

Erregistroa: Txostena: BI-2996-09
CDa: BI-2997-09



SARRERA	4
1. ZATIA: ANIZTASUNAREN ALDEKO TXOTXONGILOAK	6
Aniztasunaren aldeko txotxongiloak 2003-2004	
Proiektuaren garapena	7
Helburuak eta alderdi metodologikoak	7
2003-2004 ikasturte akademikoaren kanpainaren emaitzak	8
Irakasleek eginiko balioespenaren emaitzak	9
Ebaluazioari buruzko hausnarketak	11
Proiektu pilotuaren lorpenak, zailtasunak eta aldaketak	12
Eranskin I, II, III eta IV	14
LHietan eskainitako antzezpenen argazkiak	18
2. ZATIA: SEXU ANIZTASUNA ETA FAMILIA BERRIAK	19
Proiektuaren definizioa	20
Hezkuntza-materialen deskribapena	20
Hezkuntza-materialak nola erabili	21
Proiektuaren garapena: 2005, 2006. eta 2007 urteak	22
Eranskin I, II eta III	25
Proiektua prentsan	30
Sariak	36
3. ZATIA: ESKOLA SEXU ANIZTASUNAREN AURREAN	37
Sarrera	38
Ebaluazio kuantitatiboa: Zer gertatu da	
«Sexu-aniztasuna eta familia berriak» proiektuarekin?	40
Galdesorta	40
Hezkuntza-materialak ez erabiltzeko arrazoiak	41
Materialak non eta nola erabili diren	43
Irakasleek material horiek eskura edukitzea begi onez ez ikusteko arrazoiak	44
Irakasleek material horiek eskura edukitzea begi onez ikusteko arrazoiak	44
Ebaluazio kualitatiboa: Eskola sexu-aniztasunaren aurrean	47
Sarrera: ikasgelan sexu-aniztasunaren alde egitearen esanahia	47
Ikasgelan sexu-aniztasunarekin zerikusia duten edukiak aztertzearen garrantzia	48
Sexismoa, heterosexismoa, eta gay, lesbiana eta transexualenganako fobia	48
Sexu-hezkuntza gure hezkuntza-sisteman	49
Ikasgelan sexu-aniztasunari heltzeko zailtasunak	49
Ikasgelan sexu-aniztasunari buruz hitz egitea errazten duten faktoreak	51
Ikasgelan sexu- eta familia-aniztasunari buruz eginiko praktika onen adibidea	60
Ondorioak	65
Eranskin I eta II	71

SARRERA**Idea bat proiektu bihurtzeko bidea**

ALDARTE Bilbon sortu zen, 1994an, batetik, gay, lesbiana eta transexualen eskura eta horien ingurunearen eskura baliabideak jartzeko, eta, bestetik, gizartean eta hezkuntzan esku hartzeko, azken batean homosexualitatearen, lesbianismoaren eta transexualitatearen normalizazioa pixkana-pixkana lortzeko.

Sortu zenez geroztik 2003 urtera arte, ALDARTEk hainbat hitzaldi, jardunaldi eta tailer eskaini zituen ikastetxeetan, bigarren hezkuntzako ikastetxeetan bereziki, homosexualitateari eta lesbianismoari heltzeko. Beste hainbat gizarte-eragile ere izan dituzte jomugan jarduera horiek, Unibertsitatean eta heldu eta gazteen prestakuntzan. Urte horietan, homosexualitateari eta lesbianismoari buruzko hezkuntzari heltzeko programa eta materialak urriak ziren, baina 12-14 urteetatik aurrera zerbait egiten ari zela ohartzen ginen.

Orientazio-aniztasunean oinarritutako hezkuntza eskaintzen eta homosexualitatearen, lesbianismoaren eta familia berrien edukiak bigarren hezkuntzako ikastetxetara eramaten hainbat urte (baina sekula ez nahikoak) eman ondoren, uste argi eta sendo bat genuen: «berandu zen, eta ezin genuen hainbeste denbora itxaron sexu-aniztasunean oinarritutako hezkuntza abiarazteko; abiapuntua haurtzaroan behar zuen». Aniztasun afektibo-sexualari eta familiarrari buruzko edukiak lehen hezkuntzara eramateko ideia erakargarria zen guretzat. Ideia hori nola bideratu erabaki behar genuen, ordea, baita adin-tarte horretan zer tresna erabil zitezkeen eta 6 eta 12 urte bitarteko haurrentzako hezkuntza-proiektua norekin gauza zitezkeen erabaki ere. Ideiaren lehen izena ere zirriborrotu genuen: «Aniztasunaren aldeko txotxongiloak».

Lehen hezkuntzarako hezkuntza-proiektua bi fasetan garatu da. Lehen faseari **Aniztasunaren aldeko Txotxongiloak** izena eman diogu, eta bi ekintzatan banatu dugu: «El reino de Cerca» / «Hurbileko erresuma» txotxongilo-antzezpena eta lan-koaderno bat lantzea, antzezpena ikusi ondoren gaia lehen hezkuntzako lehen zikloan lantzeko. Fase hori 2003-2004 ikasturte akademikoan garatu zen. Bigarren fasea 2005. eta 2006. urteetan garatu zen, eta hainbat material didaktiko landu genituen hezkuntza-pakete bat osatzeko. Jarraian, hainbat ikastetxeri eta gizarte-eragileri igorri diegu pakete hori, eta horren edukiak txosten honetan bildu dira.

Besteak beste, estrategiak bultzatu nahigenituen, desberdintasun-egoerei konponbideak emateko eta orientazio sexuala dela-eta ageri diren oztopoak ezabatzeko.

Bakean bizitzea ahalbidetuko lukeen balioetan oinarritutako hezkuntza hedatzen lagundu nahi genuen tolerantzia eta elkarrekiko errespetua sustatuz, eta orientazio sexuala dela-eta sortzen diren gatazkak elkarriketa bidez konponduz.

Sexu bereko gurasoen familiarekiko sentsibilizazioa eta normalizazioa sustatu nahi genuen irakasle, familia, hezitzaile eta bestelako gizarte-eragileen artean, sexu bereko gurasoen errealitate hori zerbait positiboa dela azpimarratuz, eta gainera programa berritzaile bat jarri nahi genuen abian, hain zuzen ere indarkeriazko egoeren eta sexuen arteko desberdintasun-egoeren prebentzioan esku hartzeko baliagarri gertatuko zen programa.

Helburu horiek lortzeko asmoarekin, 2003. urtearen hasieran BERDINDU Eusko Jaurlaritzaren lesbiana, gay eta transexualen arretarako Euskal Zerbitzuarekin harremanetan jarri ginen, eta laguntza eskatu genien. Behin «**Aniztasunaren aldeko txotxongiloak**» proiekturako genuen ideia eta ideia hori errealitate bihurtzeko landu nahi genituen helburu eta tresnak azaldu ondoren, zerbitzuko arduradunak berehala egin zuten bat proiektuarekin, eta hura aurrera eramateko konpromisoa hartu. Lehen oztopoa gainditua genuen beraz; bidaideak genituen, sorkuntza-prozesuari heldu eta aurrez aurre genuen erronkari ekiteko.

Geroago, haurrentzako antzerkian diharduen Teatro Traperero del Río antzerki-konpainiako bi kiderekin (*Gotzon Mújica* eta *Ana Jodar*) harremanetan jarri ginen, eta

lesbianismoa eta sexu bereko gurasoen errealitatea ikastetxeetara eramango lukeen antzezlan prestatzeko ilusioa genuela jakinarazi genien. Ideia nola gara zitekeen hausnartzen hasi ginen, eta, hala, txotxongilo-lanaren eta «Iris eta Lila» ipuinaren oinarria izango zenaren gidoia sortzen hasi zen. El Tenderete antzerki-taldeko kide *Manya Mallabiak eta José Ignacio Andinok* bat egin zuten talde horrekin, eta, bi taldeen artean, txotxongilo-lana landu zuen, txotxongiloak sortu zituen eta pertsonaiak gorpuztu zituen antzerki-taldea sortu zen: «Urrun Erreinua». TTR eta Tenderete antzerki-taldeen lan hori antzeztu dute EAEko hainbat ikastetxetan, kultura-zentrotan eta antzokitan, soinuaz eta beste zenbait zereginaz arduratu diren zenbait laguntzaileekin batera.

Urte hauetan asko izan dira Aniztasunaren aldeko Txotxongiloak proiektuan parte hartu duten pertsonak, askotariko zereginetan. *Ana Mujikak* antzerki-gidoiaren egokitzea oparitu zigun, eta «Iris eta Lila» ipuina idatzi zuen. *Jesús Mentxaka* koadernoak lantzeko ariketez eta gida didaktikoez arduratu zen, eta *Tamara Mentxakak* txotxongilo-lanarekin batera aurkezteko egin zen lehen lan-koadernoko binetak marraztu zituen.

«**Sexu Aniztasuna eta Familia Berriak**» gizarte-hezkuntzako proiektuaren hezkuntza-paketea osatu duten material didaktiko guztiak egiteko gurekin elkarlanean jardun duen giza taldea eskuzabala izan da, nola kopuruan hala pertsona guztiek proiektu hau aurrera eramateko egin dituzten ahaleginetan.

Amaia Arriaga, Ana Ureta, Txema Uriarte eta Bego Montoriok proiektua ikuskatu dute eta euskarara itzuli dute; *Marta García Rodrigok* «Iris eta Lila» ipuina irudiztatu du; *Álvaro Pérezek* «7 familia mota» karta-jokoa diseinatu du; eta *Inmaculada Mujikak* «Familientzako gida, haur-sexualitateari, orientazio sexualen aniztasunari eta sexu bereko gurasoen errealitateari buruzkoa» gida egin du, eta koadernoaren eta gida didaktikoen edukietan lagundu du, *Ana Uretarekin eta Amparo Villarekin* batera.

Gainera, *Tamara Díazek* eta *M^a Ángeles Alconchelek* (EHUko Gizarte Hezkuntzako ikasleak, praktiketan) mailingean lagundu digute, eta horri esker materialak ikastetxeetara iritsi ziren; gainera, beste hainbat lagun gurekin etorri ziren, 2005. urtean Emakundek eta Bizkaiko Foru Aldundiak eman zizkigun sariak jasotzera. Azpimarratu nahi dugu, halaber, ahalegin handiak egin behar izan ditugula proiektu hau aurrera eramateko baliabide ekonomikoak eta instituzio-laguntza lortzeko, eta horren haritik adierazi nahi dugu hainbat erakundek laguntza eskaini digutela. Liburuan barrena, materialak sustatu eta babestu dituzten erakundeen izenak aurki daitezke.

Liburu hau hiru zatitan egituratu da. Gainera, zenbait eranskin eta argazki ere biltzen ditu, baita hemerotea ere.

1. zatian, **ANIZTASUNAREN ALDEKO TXOTXONGILOAK** proiektu pilotuak eginiko urratsak eta lorturiko emaitzak bildu dira.

Liburuko 2. zatia «Aniztasunaren aldeko Txotxongiloak» proiektu pilotuaren jarraipena da, **SEXU ANIZTASUNA ETA FAMILIA BERRIAK** gizarte-hezkuntzako proiektu bihurtua. Atal horretan, proiektuaren garapena deskribatzen da, baita agerkari horretan bilduriko material didaktikoak sortzeko prozesua ere.

Liburuko 3. zatian, ikuspegi teorikoa, metodologia eta 2008. urtean eginiko ebaluazioaren emaitzak deskribatzen dira, eta sexu-aniztasuna hezkuntzan zertan den aztertzen da, irakasleekiko eta proiektuko arduradunekiko elkarriketetatik abiatuta.

Amparo Villar- Inmaculada Mujika
Bilbao, 2009 ekaina

1. Zatia

Aniztasunaren aldeko txotxongiloak



ANIZTASUNAREN ALDEKO TXOTXONGILOAK 2003-2004**Proiektuaren garapena**

«Aniztasunaren aldeko Txotxongiloak» kanpaina Bilbon aurkeztu zen jendaurrean, 2003ko urriaren 24an, prentsaurreko baten bitartez. Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua eta BERDINDUKo eta ALDARTEko ordezkariak egon ziren bertan, kanpaina bultzatzen duten erakundeak diren aldetik.

Kanpaina jendaurrean aurkeztu ondoren, «El reino de Cerca»/«Hurbileko erresuma» txotxongilo-lanaren lehen bi antzezpenak egin ziren, La Bolsa Kultura Zentroan. Lehen emanaldia irakaskuntzaren eremuko hainbat erakunderen aurrean egin zen; biharamunean, berriz, GLTB taldeen eta hainbat gizarte-eragileren aurrean.

«Aniztasunaren aldeko Txotxongiloak» 6 eta 12 urte bitarteko haurrentzako kanpaina da, eta sentsibilizazioaren eta aniztasunean oinarritutako hezkuntzaren alde egin nahi du, sexu-aukera guztiak errespetatzearen alde eta sexismoaren aurka. Kanpaina egiten dugun erakundeok bat egiten dugu helburu horiekin. Proiektu berritzailea da, hezkuntza-ingurunean ez genuelako eskura lan-tresna egokirik afektibitatea-sexualitatea bizitzeko bestelako moduekiko eta bestelako familia-estiloekiko aurreiritziari heltzeko.

Gure ustez, argi dago hezkuntza dela garrantzi handiko zenbait balio (tolerantzia, errespetua, berdintasuna eta aniztasuna) lantzeko eskura dugun tresnarik indartsuena, eta uste oso horrek animatu egin gintuen proiektu hau bultzatzera. Haurtzaroa eta aurrenerabearoa bizitzaren etapa goiztiarrak dira, eta haietan behar-beharrezkoa da balio horiekin harremanetan sartzea, etorkizuneko elkarbizitza beste pertsonetikiko estimazioko eta errespetuko jarrearen gainean eraikitzeko, pertsona horien orientazio sexuala edozein izanik ere.

Bestetik, aniztasuna bizitzaren lehen urteetatik bizi, ulertu eta eraiki behar dela uste dugu. Gizon eta emakumeek hainbat errealitate eta aukera dauzkagu sexualitatea bizitzeko, eta hurrek horien guztien berri izan behar dute. Kanpaina honek tresna lagungarria izan nahi du haurrak homosexualitatea naturaltasunez bizitzeko has daitezen. Horren haritik, hobe da sei urtekoekin hastea, areago kontuan hartuta hainbat haur sexu bereko gurasoen familietan bizi direla.

Helburuak eta Alderdi metodologikoak

Proiektu honekin honako helburu espezifiko hauek bete nahi genituen, besteak beste:

- Haurrei jarrera kritikoak garatzen laguntzea, poliki-poliki maskulinitasun- eta feminitate-estereotipoei aurre egin diezaieten, orientazio sexuala bizitzeko bestelako moduekiko balio positiboak sustatuz. Izan ere, estereotipo horiek oinarritzen diren kultura-tradizioak sexuen arteko desberdintasunari eusten dio, eta gizon eta emakumeen homosexualitatea gaitzesten du.
- Aisialdiaren eremuan orientazio sexualen aniztasuna eta familien aniztasuna normalizatzea, eta, proiektu honen bitartez, praktika honen edukiak bultzatzea, ondorenean beste hainbat ekintza bultza eta hobe ditzaten.
- 6 eta 12 urte bitarteko haurrei hainbat familia-estilo daudela jakinaraztea, eta familia horietan guztietan haurrak era berean maitatzen dituztelako ideia hedatzea. Objektibotasunez, haur askoren benetako egoera erakustea, eta sexu bereko gurasoen familietan hezten diren haurrek beren ikaskideekin horretaz hitz egin dezaten erraztea, haien estimazioa handitzeko eta isiltasunetik irteteko mesedegarri gertatuko den heinean.
- Haurrentzat korapilatsuak (maila pertsonalean zein jendaurrean horren inguruan hitz egiterakoan, ikasgelan lagunekin edo beste eremu batzuetan) gerta daitezkeen egoerak onartzen laguntzea.

Antzezlanerako hautatu ziren txotxongiloek ezaugarri bisualak eta itxuraz bizidunak zituzten, baina gutxi batzuek baino ez zuten itxura «errealik». Haur-artetik eta irudimenetik

gertuago zeuden, beraz. Txotxongiloak adierazpide zoragarria dira, eta edozein hezkuntza-eremutan balia daitezke. Gainera, kontzentrazioa sustatzeko bitarteko bikainak dira, baita balio handiko pizgarriak ere, mota guztietako gaiak —errazak, zailak eta beldur pertsonal-ekin zerikusia dutenak— aurkezteko aukera ematen dutenak. Txotxongiloek ikaskidea, arreba, ahizpa edo anaia ordezkatzan dituzte erraz askoan, eta haurrak haiekin identifikatu egiten dira; horren ondorioz, benetako konplizitatea sortzen da. Material didaktikoari dagokionez, esan beharra dago *metodologia aktibo eta zeharkako* batetik sortu dela, sexualitatea dimentsio anitzeko errealitatez jotzen delako, hainbat alderdi biologiko, psikologiko eta sozial biltzen dituen heinean. Metodologiak modu aktiboan konprometituko du neska edo mutila, eta jakintza besterik gabe transmititzea alde batera uzten da, manipulazioaren eta esperimentazioaren bitartez ikasleak barneratzeko eta hausnarketa pertsonaleko prozesua aurrera eraman dezan ahalbidetuz. Edukiak neska-mutilengana hurbiltzeko funtsezko metodologia gisa erabiliko da jokoa, eta hizkuntza argia, zehatza eta ez-sexista baliatuko da. Materiala EAEko bi hizkuntzetan sortu da, euskaraz eta gaztelaniaz.

Premisa horietatik abiatuta eta prestatze-prozesua burututa, urrian gutuna eta publizitatea igorri genien EAEko ikastetxeei, kanpaina eskaintzeko, eta oso harrera ona lortu genuen. Urtarrilaren 19rako guztira 68 ikastetxek ageri zuten kanpainaren aldeko interesa; azaroan eta abenduan 18 antzezpen egin ziren; urtarriletik ekainera bitarte, beste 42 ikastetxek izan zuten antzezlanak ikusteko aukera. Argi dago, beraz, neska-mutil ugariak izan zutela kanpainan parte hartzeko aukera. (Ikus I., II. eta III. eranskinak)

Ikastetxeei ez ezik, kanpaina hau beste hainbat erakunderi ere eskaini zaie, hala nola gay eta lesbianen elkarteei, kultura- eta aisialdi-taldeei eta abar, eta zenbait ekitalditan ere aurkeztu da, *Aniztasunean Hezteari buruzko I. Jardunaldian* (Badajoz 2004), *Naro Berdintasunerako Foroan* (Gasteiz 2005) eta *Sexu bereko Gurasoen Adopzioari buruzko I. Biltzarrean* (Cáceres 2005), esaterako.

2003. urtean «Aniztasunaren aldeko Txotxongiloak» proiektua abiatu zenez geroztik, erakunde publikoekin harremanetan jartzen ahalegindu gara, eta bereziki hezkuntzarekin eta berdintasunaren aldeko borrokarekin zerikusia zuzenagoa dutenekin, unean-unean lan-prozesua eta kanpainaren garapena zertan ziren jakinarazteko.

Hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzarekin, Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako Aldundiekin eta Bilboko Udalarekin bildu gara. Berritzeguneei, Ama eta Aiten Federazioari, Aisialdiko Eskolei eta gazte-eremuko Elkarteei ere informazioa helarazi diegu, aldian-aldian.

Hala, «Aniztasunaren aldeko Txotxongiloak» kanpaina pilotua abian jarri da, honako bi ekintza hauetan banatua:

- **«Hurbileko erresuma» txotxongilo-antzezpena.** Iris eta Lila dira bi protagonistak; elkarrekin maitemindu diren bi neska horiek hamaika abentura biziko dituzte, ipuinetako pertsonaiek bezalaxe. Istorioan balio ez-sexistak islatzen dira, orientazioen aniztasunarekiko tolerantak eta bestelako kulturak errespetatzearen aldekoak. Lesbianismoa agerian uzteko helburuarekin, guretzat bereziki garrantzitsua zen protagonistak bi neska izatea, hain zuzen ere elkarrekin gustatu eta elkarrekin maitemintzen diren bi neska. (ikus IV. eranskina)
- **«HURBILEKO ERRESUMA» antzezlanean oinarrituriko lan-koadernoak egitea.** Material honen bitartez tresna baliagarri bat jarri nahi da irakasleen eskura, txotxongilo-antzezpenaren edukiak ikasleekin lantzeko aukera izan dezaten. Koadernoak fitxa independenteez diseinatu da, eta zeharkako ikusmolde bati jarraiki, zenbait irakasgaitan —matematika, hizkuntza, ingurunearen ezaguera, logika eta plastika, esaterako— landu ahal izateko.

2003-2004 ikasturte akademikoaren Kanpainaren emaitzak

2003-2004 ikasturtean kanpaina EAEko 60 ikastetxetan burutu zen; bertan, «Hurbileko Erresuma» lana antzeztu zen, eta ikastetxe guztiek antzezlanean oinarritutako

lan-koadernoan jaso zuten. Egiten ari ginen proiektua balioetsi ahal izateko, eta antzezpena ikusi ondoren, irakasleek ebaluazio-fitxa bat betetzen zuten, zenbait gairi buruz —edukiak, alderdi teknikoak eta metodologikoak— zuten iritzia emateko. Informazio horiek eskura, jarraian erakusten den emaitza-taula landu zen:


- Antzezpena ikusi zuten ikastetxeen kopurua: 60
 - Antzezpena ikusi zuten neska-mutilen kopurua: 6.055
 - Antzezpena ikusi zuten irakasleen kopurua: 382
 - Antzezpenaren ebaluazioak egin zituzten ikastetxeen kopurua: 40
 - Ebaluazioa egin zuten irakasleen kopurua: 181 (% 78)
 - Euskaraz egin ziren antzezpenen kopurua: 58 (% 97)
 - Gaztelaniaz egin ziren antzezpenen kopurua: 2 (% 3)
- Antzezleak: TTR (Teatro Trapero del Río) eta EL TENDERETE antzerki taldeak

Erakunde laguntzaileak:


- Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila
- EMAKUNDE
- Bizkaiko Foru Aldundia
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Giza Eskubide, Enplegu eta Gizarteratze Departamentua
- Bilboko Udala-Emakumearen Zerbitzua

Irakasleek eginiko balioespenaren emaitzak


1. galdera: Eszenatokiaren muntaketari, eszenaratzeari, soinuari, musikari, iraupenari, erritmoari edo kadentziari eta txotxongiloen lanketari buruzkoa. Zer iruditu zaizkizue antzezlanaren alderdi teknikoak?




2. galdera: Zer iruditu zaizkizue antzezlanaren edukiak? Edukia oro har, homosexualitatearen tratamendua, sexu bereko gurasoen errealitatearen tratamendua, gizarte-aniztasunaren tratamendua eta haurren erreakzioa.




3. galdera: Haurrentzat, erakargarria al da antzezlanak? Haurren interesa pizten al du?:




4. galdera: Pedagogikoki, bat egiten al du antzezlanak ikastetxean erabiltzen dituzuen balio edo irizpideekin?




5. galdera: Egokitzen al da antzezlanak kanpainaren helburu nagusietara?




6. galdera: Orientazio sexualen aniztasuna ikasgelan lantzeko tresna gisa, antzezlanaren baliagarritasun maila honako hau da:



7. galdera: Familia estiloen aniztasuna ikasgelan lantzeko tresna gisa, antzezlanaren baliagarritasun maila honako hau da:



8. galdera: Homosexualitatearekin zerikusia duten gaietan hurrek elkarri burla egitea prebenitzeko tresna gisa, antzezlanak honako maila hau dauka:



9. galdera: «Aniztasunaren aldeko txotxongiloak» kanpainaren aurretik, landu al dituzue ikastetxeko haurrekin homosexualitatearekin eta sexu bereko gurasoen errealitatearekin zerikusia duten gaiak?



Ebaluazioari buruzko hausnarketak

Ebaluazioa oro har aztertu ondoren, emaitzak onak izan direla esan dezakegu. Irakasleek «ongi» edo «oso ongi» balioetsi dute kanpaina, eta balio horiek dira gehien nabarmendu direnak ebaluazioa osatzen duten galdera guztietan.

Horrenbestez zera esan dezakegu, «Aniztasunaren aldeko Txotxongiloak» kanpaina, 2003-04 ikasturteko estreinaldian, baliagarri gertatu dela homosexualitatearekin eta sexu bereko gurasoen errealitatearekin zerikusia duten gaiak lehen hezkuntzako haurrengana hurbiltzeko.

Irakasleek oso harrera ona eskaini diote «Aniztasunaren aldeko txotxongiloak» kanpainari. Irakasleek eginiko balioespenaren arabera, beharrezkoa litzateke orientazioen eta familia-estiloen aniztasunarekin zerikusia duten edukiak lehen hezkuntzako eskola-curriculumera etengabe biltzea, aurrerantzean hurrek homosexualitatea edo neska edo mutil batek bi ama edo bi aita izatea normaltasunez ikus dezaten.

Antzezpeneren alderdi teknikoei dagokionez, aipatzekoa da ebaluazioak iritzi bikainak jaso dituela, irakasleen % 86k ontzat edo oso ontzat jo baititu (% 11k, berriz, normaltzat jo ditu). Hortaz, antzezlanaren alderdi bisualak eta eszenaratzeak harrera bikaina jaso dute.

Edukiei dagokionez, badira hainbat iritzi balio normalaren eta «oso ongiaren» artean oreka handiagoz banatzen direnak (% 22 eta % 28%, hurrenez hurren). Irakasle gehienek (% 43), homosexualitateak eta sexu bereko gurasoen errealitateak tratamendu ona jasotzen dutela uste dute Irakasleen % 95ek antzezpena haurrentzat erakargarria dela eta haurren interesa pizten duela adierazi du.

Antzezpenak oso ongi erantzuten die ikastetxeek erabiltzen dituzten balioei edo lanerako irizpideei. Irakasleen % 73k ongi (% 53) edo oso ongi (% 20) egokitzen dela uste du. % 19k eta % 10ek, aldiz, normal eta hala-moduz egokitzen dela uste du, hurrenez hurren. Inork ere ez du uste gaizki egokitzen denik. Balioespen horretan azpimarratu denez, lana antzezteko eskaera (borondatezkoa, betiere) Lehen Hezkuntzako Ikastetxeen aldetik iritsi da, hasiera batetik oso prest ageri baitira gai horiek guztiak lantzeko.

Irakasleen % 85ek antzezlanak kanpainaren helburu nagusietara ongi edo oso ongi egokitzen dela uste du. Datu horrek aditzera ematen du irakasleek behar bezala ulertu dituztela helburuak, kanpainaren hasieratik zentzu horretan egin ziren ahaleginei erantzun egokia emanez.

Orientazioen eta familia-estiloen aniztasuna ikasgelan lantzeko helburuari dagokionez, irakasleek, oro har, kanpaina tresna egokia dela uste dute. Balioespen ona egin dute, beraz, nahiz eta eskura eduki zituzten material pedagogikoak 6 eta 8 urteko haurrentzat bakarrik baliagarri izan.

Irakasleen % 94k adierazi duenez, kanpaina tresna baliagarria da hurrek elkarri burla egitea prebenitzeko, homosexualitatearekin zerikusia duten gaietan.

Kanpaina aitzindaria eta berritzailea da, eta azken galdera dugu horren adierazgarri. Izan ere, irakasleen % 83k adierazi duenez, txotxongilo-kanpainaren aurretik ez zuen inoiz

homosexualitatearen eta sexu bereko gurasoen errealitatearen gaia landu bere ikastetxeko hurrekin.

Proiektu pilotuaren lorpenak, zailtasunak eta aldaketak

Proiektu pilotu honen lorpen nagusia honako hau da: lehen hezkuntzan homosexualitatearen gaia sartu izana, eta, zehazkiago, lesbianismoa agerian utzi izana, prebentzio neurri gisa, etorkizunean lesbianismoa agerian uztearen eta gay errealitatea agerian uztearen arteko desoreka murrizteko.

Nabarmentzekoa da, halaber, oso tresna ludiko bat landu izana, hain zuzen ere txotxongilo-antzerkia, homosexualitatearen eta sexu bereko gurasoen errealitatearen gaiak haurrengana hurbiltzeko baliagarria.

Garrantzitsua da, halaber, ikastetxeetan gai hori landu beharra dagoela egiaztatu izana, baita irakasleak horretarako prest daudela berretsi izana ere. Gainera, neska-mutilek oso harrera ona egin diote gaiari, eta normaltasunez hartzen dute bi neska elkarrekin gustatzea.

Zenbait ikastetxek gai horri buruzko prestakuntza eskatu zuten irakasleentzat. Zehazkiago, hurrekin homosexualitateari eta lesbianismoari nola heldu behar zitzairen jakin nahi zuten, baita horretarako zer baliabide behar zituzten ere.

Proiektu honek HEGOAK lehen saria jaso du 2003an, baita garrantzizko bi errekonozimendu ere, 2005. urtean: batetik, EMAKUNDE Hezkuntza Saria, eta, bestetik, BERDINTASUNA Saria, Bizkaiko Foru Aldundiko genero-politiken arloaren eskutik.

Zailtasunak ugariak izan ziren, eta baliabide ekonomikoak, aldiz, urriak, proiektuaren eskari handia aintzat hartuta. Izan ere, txotxongilo-antzezpenak ikusteko eskariak aurrekontuaren arabera eskaini zitekeena gainditzen zuen. Ikastetxe bakoitzean txotxongilo-antzezpen bakarra egin zitekeen, eta horregatik oso bestelako adinak nahastu behar izan ziren, pedagogikoaren kaltetan.

Ikastetxeetara bidali beharreko material didaktikoa amaitu zenerako ikasturtea oso aurreratua zegoen, eta beraz, zenbait ikastetxetan denbora gehiegi pasatua zegoen antzezpena ikusi zutenek geroztik; horren ondorioz, ekintzetan koordinaziorik eza nagusitu zen, antzezpena ikusi zenetik bidalitako material didaktikoa eskura ikasgelako lana hasi arte.

Irakasleekin konektatu beharra zegoen, behin antzezpena ikusitakoan gaia ikasgelan lantzerakoan sor litezkeen zailtasunak detektatzeko; konexio hori, ordea, oso txikia izan zen. Irakasleek kanpainarekiko erakutsi zuten inplikazioa, halaber, txikia izan zen, eta litekeena da zenbait ikastetxetan jarduera betegarritzat aurkeztu izana. Inplikazioa eskasa izan bada ere, begi onez ikusten dugu irakasleek jarrera irekia erakutsi izana, hurrekin gaiari lehenbiziko aldiz heldu eta hurrei errealitate hori erakusterakoan.


Hausnarketa horien ondoren eta erakunde bultzatzaileek ebaluazioa egin eta gero, argi eta garbi ikusi genuen proiektuak norabide-aldaketa behar zuela: material gehiago landu behar genuen, eta zuzeneko antzezpenak alde batera utzi, nahiz eta irakasleek jarduera hori oso ongi balioetsi, ikastetxe guztiek nork berean txotxongiloak edukitzea bideraezina zelako aurrekontu-ikuspuntutik. Hezkuntza-proiektuarekin jarraitzeko erabakia hartu genuen, eta, hala, **Sexu-aniztasuna eta familia berriak** proiektua sortu zen, 2005. urtean, hezkuntza-material osoa landu eta banatzeko helburuarekin, homosexualitatearen, lesbianismoaren eta sexu bereko gurasoen errealitatearen gaia lantzeko, nola 6 eta 12 urte arteko hurrekin, hala familiekin eta irakaskuntzako eta hainbat eremutako profesionalekin.

Proiektuaren helburu orokorrek baliagarri izaten jarraitzen zuten, eta horregatik honako aldaketa hauek baino ez ziren egin: antzezlan DVDan grabatu zen; materialen poltsa karta-joko batekin, ipuin batekin eta familientzako gida batekin osatu zen; eta lehen hezkuntzako ziklo guztietarako lan-koadernoak eta gida didaktikoak hobetu ziren.

Material horiek guztiek helburu pedagogikoak zituzten, eta, modu atseginez, zenbait gizarte-errealitate —lesbianismoa, homosexualitatea eta sexu bereko gurasoen familiak, esaterako— integratzeko eta normalizatzeko lagungarri behar zuten. Proiektuaren deskribapen labur hori dokumentu honen bigarren zatian osatzen da. Bertan, gainera, material didaktikoak ikusteko aukera dago.

I. Eranskina

Kanpainaren lehen liburuxka



«Hurbileko Erresuma» antzezlanean parte hartzen duten txotxongiloak



II. Eranskina

«Aniztasunaren aldeko Txotxongiloak» proiektua aurkezteko eta «Hurbileko Erresuma» txotxongilo-lanaren antzezpena eskaintzeko ikastetxeei bidalitako gutuna



Bilbo, 2003ko irailak

Zuzendari eta Ikasketa-buru jn./and. agurgarria/k.:

Tolerantzia, errespetua, berdintasuna eta aniztasuna lantzeko daukagun tresnarik boteretsuena hezkuntza dela jabetzen garenez, zuen ikastetxearekin harremanetan jartzen gara "TXOTXONGILOAK ANIZTASUNAREN ALDE" kanpainaren berri emateko. Kanpainaren antolatzaileak ALDARTE (Gay eta Lesbianen Zentroa) eta BERDINDU (Gay, Lesbiana eta Transexualen Arretarako Euskal Zerbitzua) dira, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren laguntzarekin.

Gure hezkuntza-sisteman sexu-aniztasuna 12 urteetatik aurrera lantzen da, lehen mailako irakaskuntzak oraingoz behintzat hori lantzeko tresna pedagogikorik ez baitauka; hala ere, ziur gaude hutsune hori betetzen hasi behar dela eta errealtate hori beste asko lantzen diren bezala landu egin behar dela. "TXOTXONGILOAK ANIZTASUNAREN ALDE" kanpainak, hezkuntza-sisteman lehen aldiz, 6 eta 11 urte bitarteko neska-mutuei gizonok eta emakumeok ditugun aukera afektibo-sexual ezberdinen eta gaur egun jadanik errealtate bat diren familia-eredu ezberdinen berri eman nahi die.

Kanpaina honen erronka nagusia pluraltasunean oinarritzen den heziketa lortzea da, afektibitatea eta sexualitatea bizitzeko modu guztiak onartu eta errespetatzen dituen.

Dakizuenez, txotxongiloak baliabide bikaina dira era guztietako gaiak aurkezteko, errazenetatik hasi eta zailenetaraino, baita beldur edo kezka pertsonalak ukitzen dituzten gaiak ere. Adierazpide paregabea iruditzen zaigu hezkuntza-eremuaren etapa horretan lan egiteko.

"Hurbileko erresuma" antzezlanean Iris eta Lilaren istorioa kontatzen digute. Iris eta Lila elkar maite duten bi neska dira, eta ipuinetako pertsonaiei dagozkien abenturak eta gorabeherak izango dituzte. Istorio interklasista da, eta beste kulturak errespetatzen ditu.

"TXOTXONGILOAK ANIZTASUNAREN ALDE" kanpainak aukera ematen dizue antzezlan hau zuen ikastetxean euskaraz nahiz gaztelaniaz doan antzezteko, baita antzezpeneraren edukiak ikasgelan lantzeko egin ditugun fitxak eta material didaktikoak erabiltzeko ere.

Proposamena interesgarria iruditzen bazaizue, informazio gehiago (datak, baldintza teknikoak, eta abar) eska dezakezue Aldarten, 94 423 72 96 telefono-zenbakira deituz edo ondoko helbidera idatziz: aldarte@aldarte.org

Jaso ezazue agur bero bat

Inmaculada Mujika,
Aldarteko koordinatzailea

Victor Manuel Santamaria,
Berdindu Zerbitzuaren Arduraduna

III. Eranskina

«*Hurbileko Erresuma*» honako ikastetxe hauetan antzetzatu da 2003-2004 ikasturtean.

2003ko azaroan eta abenduan	
Bizkaia:	12 ikastetxe
Gipuzkoa:	6 ikastetxe
Álava:	1 ikastetxe
Guztira	19 ikastetxe
Antzezpena ikusi zuten neska-mutilen kopurua:	1.593
Irakasle kopurua:	95
Lan Koaderno 03/11/19an bidali zen	
LHI	Herria
Vista Alegre	Sestao
Centro Residencial Eibar,	
CEP San Andrés y Anaitasuna	Eibar (Extensión Títeres de Tolosa)
Koldo Mitxelena	Renteria
Intxaurren Ikastola	Donostia
Etorkizuna Ikastola	Abanto-Ciervana
San Francisco	Bermeo
Pagasarribide	Larraskitu-Bilbo
Plaentzi	Soraluze-Placencia
Mukusuluba	Barakaldo
Urkitza	Bakio
Lope de Vega	Basauri
Zubileta	Getxo
Maeztu	Arraia-Maeztu
Aita Iparraguirre	Idiazabal
Geroa Ikastola	Getxo
Ángel Larena	Artzentales
Antonio Trueba	Portugalete
Barrutia	Arratzu-Gernika

2004ko urtarriletik ekainera bitarte	
Bizkaia:	17 ikastetxe
Gipuzkoa:	15 ikastetxe
Álava:	9 ikastetxe
Guztira	41 ikastetxe
Antzezpena ikusi zuten neska-mutilen kopurua: :	4.462
Irakasle kopurua:	287
LHI	Herria
Deusto	Bilbao
Izarra	Urkabustaiz (Alava)
Dulantzi	Alegria Dulantzi
Adurza	Vitoria-Gasteiz
Luis Eceiza	Eskoriatza
Zubeldia	Portugalete
Learreta-Markina	Mallabia
J.A. Muñagorri	Berastegi
Txingudi Ikastola	Irun
San Martin	Bergara
Gorondagane	Sondika
Gallego Gorria	Irala-Bilbao
Garasi	Legutiano

LHI	Herria
Aranzabela Ikastola	Vitoria-Gasteiz
Laiotz	Segura
Juan XXIII	Lizartza
Askartza Isusi	Las Carreras
Ondarroa	Ondarroa
Zuhaizti	Donostia
Padre Orbiso	Vitoria-Gasteiz
Pio Baroja	Bilbao
Langile Ikastola	Hernani
Victor Tapia	Laguardia
Elatzeta	Irun
Mimetiz	Zalla
Lope de Vega	Basauri
Lamiako	Leioa
Sta. Teresa de Beurko	Barakaldo
Urreta	Galdakao
Ikas-Bide Ikastola	Donostia
Arantzasuko Ama	Donostia
Barandiaran Ikastola	Ataun
Albiz	Sestao
Lucas Rey Ikastetxea	Amurrio
Zestoa Herri ikastetxea**	Zestoa
Odon de Apraiz Ikastola	Vitoria-Gasteiz
Zipiriñe	Sopelana
Arroa	Zestoa
Arisko Ikastola	Basauri
Luzaro	Deba
Altzaga	Erandio

IV. Eranskina

«Hurbileko erresuma» antzezlanaren fitxa teknikoa

Antzezleak:	TTR (Teatro Trapero del Río) eta EL TENDERETE
Gidoia:	Iris eta Lila neskak dira istorio honen protagonistak. Elkar maite dute eta elkarrekin egon nahi dute. Hurbileko erresuman, ordea, kondea eta printzearen ama bizi dira, eta neska baten bila dabilta printzearekin ezkontzeko. Printzeak ez du gogoko aurkeztzen dizkieten hautagaietatik bat ere, eta kondeak Koplas eta Azkarratxin urrutieneko erresumara bidaltzen ditu Iris bahitzeko. Hortik aurrera, Lila, bere bi amen laguntzarekin, Iris askatzen ahaleginduko da.
Antzezpenen hizkuntza:	Euskara eta Gaztelania.
Gehieneko ikusle kopurua:	150 pertsona.
Erabilitako Manipulazio Teknika:	Eskuzkoa eta Hagaxka.
Antzezpenaren Tokia:	Barnealdeak.
Esezenatokia:	Zabalera: 3 metro Altuera: 3 metro Sakonera: 4, 5 metro
Antzezpenaren iraupena:	45 minutu
Muntaketa-denbora:	90 minutu
Desmuntaketa-denbora:	45 minutu
Behar Teknikoak:	Korronte-hargunea eszenatokiaren oinaldean. Aretoaren azalera: 3 m. x 3 m. x 4,5 m. Ahal dela, iluntzeko aukerarekin

LHietan eskainitako antzezpenen argazkiak



2. Zatia

Sexu aniztasuna eta familia berriak



Proiektuaren definizioa

«Sexu-aniztasuna eta Familia Berriak» gizarte-hezkuntzazko proiektua, liburu honen lehen zatian azaldutako «Aniztasunaren aldeko Txotxongiloak» proiektuaren jarraipena da.

Fase honetan, proiektuak, funtsean, aurrez azaldutako helburu berberak ditu. Jardunari dagokionez, hezkuntza-materialen pakete bat osatu nahi da, jarraian lehen hezkuntzako ikastetxeetara hedatzeko bereziki. Prozesu horretan, honako urrats hauek egin ziren:

- Lehen hezkuntzako hiru zikloetarako hiru lan-koadernoak eta gida didaktikoak diseinatzea
- Txotxongilo-antzezlan DVD formatuan grabatzea
- «Iris eta Lila» ipuina irudiztatu eta argitaratzea
- «7 familia mota» karta-jokoa eta posterra egitea

Hezkuntza-materialen deskribapena



«**Hurbileko Erresuma**» txotxongilo-lanaren antzezpena biltzen duen **DVDa**: Iris eta Lila dira protagonistak; elkarrekin maitemindu diren bi neska horiek hamaika abentura eta gorabehera biziko dituzte, ipuinetako pertsonaiek bezalaxe.



Ikasleentzako lan-koadernoak: lehen hezkuntzako hiru zikloetarako koadernoak; eta **Irakasleentzako gida didaktikoak**: gida bat ziklo bakoitzeko, gaia ikasgelan nola landu behar den argitzen duen informazioarekin.



«**Iris eta Lila**» ipuina, «**Hurbileko Erresuma**» txotxongilo-lanaren gidoian oinarrituta.



«**7 familia mota**» **karta-jokoa**: Karta sorta (42 karta). Jokoaren oinarritzko egitura eta familia-talde bakoitza osatzen duten elementuak honako hauek dira:

Bizkaia	Gipuzkoa	Araba	Nafarroa	Lapurdi	Behenafarroa	Zuberoa
1 aitona	1 aitona	1 aitona	1 aitona	1 aitona	1 aitona	1 aitona
2 amona	2 amona	2 amona	2 amona	2 amona	2 amona	2 amona
3 ama	3 ama	3 aita	3 aita	3 ama	3 ama	3 osaba
4 aita	4 ama	4 aita	4 izeba	4 osaba	4 aita	4 izeba
5 semea	5 semea	5 semea	5 semea	5 semea	5 semea	5 semea
6 semea	6 alaba	6 alaba	6 alaba	6 alaba	6 alaba	6 alaba



Familiei orientazioa emateko gida: Sexualitateari, homosexualitateari, lesbianismoari eta familia berriei buruzko informazioa eskaintzen da gida horretan. Gainera, sexualitatearen garapenean haurrek igarotzen dituzten prozesuak deskribatzen dira.

Hezkuntza-materialak nola erabili

Proiektu honetan bilduriko materialak etengabe erabiltzeko diseinatu dira; hala eta guztiz ere, materialak banan-banan ere lan daitezke, modu autonomoan. Jarraian, segida posibleetako bat iradokitzen dizuegu:

Hasteko, IRIS eta LILA protagonista nagusiak diren txotxongilo-lanaren **DVDa** ikusi. Kontatzen digutenez, Lila printze batekin ezkondu nahi dute, baina hark ez du nahi, beste neska batekin, Irisekin, maiteminduta dagoelako. Neskato aktiboak, zer nahi duten dakiten eta desio propioak dituzten neskak, ageri dira antzezlanean. Modu sotilean, sexu bereko gurasoen familia bat aurkezten da, Irisek, protagonistetako batek, bi ama dauzkalako. DVDan ageri diren pertsonaiak lan-koadernoetan jasota daude, 1. koadernoan bereziki, eta horregatik hobe da DVDa ikustea haiekin lanean hasi aurretik.

Ariketa-koadernoek, proiektuak oro har bezalaxe, honako helburu hau dauka: ikasleek elkarbizitzaren ikastea, eta pertsonok afektibitatea, sexualitatea eta familia bizitzeko dauzkagun modu desberdin guztiekin ohitzea.

- 1. koadernoan 13 ariketa bildu dira, bi astetarako edukia, gutxi gorabehera. Behaketa, matematika eta zenbakiak lantzen dira, eta ebaki eta pintatzeko fitxak biltzen ditu. Ez da beharrezkoa koadernoaren ordenari jarraitzea, eta fitxak txandaka daitezke. Fitxak fotokopia daitezke, eta horrek ikasgelako lana errazten du; gainera, zuri-beltzezkoak dira, eta beraz fitxen gainean pintatzeko aukera dute haurrek. Koadernoko ariketa gehienetan ipuinaren eta DVDaren pertsonaiak ageri dira, eta beraz hobe da ikusi edo irakurri dutena gogora ekartzea, koadernoarekin hasi aurretik.
- 2. koadernoan, sexu-aniztasunari zuzenago heltzen dioten 12 jarduera bildu dira. 2. ariketan kontzeptuak lantzen dira: lesbianak, homosexualak eta bi ama dituzten familiak, gure ingurunean errealitate horren berri izan dezaten; «ikasgelaren azterlana» izeneko 10. ariketan ere gai horiek ageri dira. «Iris eta Lila» ipuina irakurtzea ere komeni da. Oro har, joko eta denbora-pasen modukoak dira ariketak, eta haurrek ondo pasatzea dute helburu nagusizat.
- 3. koadernoko ariketek agerian uzten dute gay eta lesbianek munduan bizi duten legezko egoera, eta egoera hori eguneratzeko proposamena egiten du, web-orriak edo egunkariak kontsultatuz. Istorioa lantzen da, gaur egun homosexualizat edo lesbianizat jotzen diren zenbait pertsonaia historiko aurkeztuz, estereotipoak ezabatzeko. Koadernoan ipuinaren gidoiaren bertsio berri bat jaso da, haurrek pertsonaien rola berenganatu eta joka ditzaten, eta pertsonaienganako enpatia senti dezaten.
- Ariketa-koaderno bakoitzak bere **gida didaktikoa** dauka. Materiala nola erabili adierazten du, baita ziklo bakoitzak zer helburu zehatz dituen ere. 3. gidan, berriz, zer trebetasun lantzen diren azaltzen da, eta ariketak nola egin behar diren iradokitzen.

Iris eta Lila ipuina ere antzezlanaren gidoian oinarrituta dago, eta, funtsean, istorio berbera kontatzen du. Alabaina, ipuinean esanbidez adierazten da neskatoak maiteminduta zeudela eta «*elkar musukatzen dutela eta kondea harritu egiten dela, hura ikustean*». Neskato alai, aktibo, seguru eta borrokalaria deskribatzen dira ipuinean, eta «urrutieneko herrialdea» erakusten ahalegintzen da, hain zuzen ere balioak «hurbilenekoan» baino askeagoak diren herrialdea.

Familiei orientazio emateko gida oso dokumentu baliagarria izan daiteke. Haur-sexualitatearen eta orientazio sexualaren alderdi jakin batzuk jorratzen ditu, litekeena delako familiek gai horien inguruko informazioa nahi edo behar izatea. Alaba batek edo seme batek lesbiana edo gay dela jakinaraztean hainbat familiari sortzen zaizkien galderei erantzuten ahalegintzen da, sexu bereko gurasoen familien errealitateari heltzen dio, eta sakonetik aztertzen du familia mota hori ingurune egokia ote den neska-mutilak hazteko.

Karta-jokoan 7 familia mota erakusten dira: bi aita dituzten familiak, bi ama dituztenak, aita bat eta ama bat dituztenak, ama bat eta seme-alaba adoptatuak dituzten

familiak eta abar. Pertsonaien ezaugarriak lantzerakoan, Euskal Herriko 7 herrialdeetako ohitura eta kultura-alderdiak hartu dira kontuan, eta ikur ospetsuekin lotu dira, hala nola haizearen orraziarekin Gipuzkoan, urtegiarekin Araban edo Sanferminekin Nafarroan. Familia bakoitzaren puzzlea osatzerakoan, ikur horiek oso-osorik ikusten dira. Jokoa ez da erraza, familia guztiak desberdinak direlako, eta, beraz, posterrari edo familia bakoitza osatzen dutenen berri ematen duten bi kartei etengabe erreparatu behar diegulako, horietan bilduriko informazioa kontsultatzeko. Jokatzan duten bitartean, orientazioa eman behar zaie haurrei, eta horrek bide emango du ageri diren familien aurrean neska-mutilek nola erreakzionatzen duten ikusteko, baita, jokatu bitartean, familia bakoitzari buruz hitz egiteko ere.

Hezkuntza-paketearen barnean ebaluazio-fitxa bat hartu da (ikus III. eranskina).

Proiektuaren garapena

Proiektua 2004tik 2007ra bitarte garatu da. 2005. urtean material didaktikoak landu ziren, eta lehen aldiz argitaratu ziren. 2005eko azken hiruhilekoan, materialak lehen aldiz bidali ziren EAEko ikastetxeetara eta gizarte- eta hezkuntza-arloko beste hainbat erakundetara, eta 2007an, zenbait material aldatu eta hobetu ondoren, bigarren aldiz bidali ziren ikastetxe guztietara. Nabarmenezkoa da urte horietan zenbait ikastetxe eta beste hainbat erakunde, EAEkoak zein EAEtik kanpokoak, proiektuaren bultzatzaileengana etorri direla, ale gehiago eskatzeko eta proiektuarekiko interesa helarazteko. (Ikus I. eta II. eranskinak)

Proiektuaren fase horretan, materialak lantzen ari ginen bitartean, 2005eko azaroan Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saileko Pedagogia Berrikuntzaren arloko arduradunekin bildu ginen, eta poltsa bat eman genien material didaktikoarekin, materialak aurkeztu genizkien, eta kanpainaren helburuak eta egun horretara arte lorturiko emaitzak azaldu. Ordutik aurrera harremanetan egon gara Sail horrekin. Edukiak eta euskara aztertze konpromisoa hartu zuen Sailak, baita materialen pakete oso berri bat ikastetxeetara bidaltzeko konpromisoa ere.

Harreman horien eta eginiko azterketaren ondorioz, materialak aldatu ziren, eta koaderno eta gida didaktiko berriak argitaratu ziren. Hala, 2007ko urtarrilerako, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila proiektuaren hezkuntza-paketea ikastetxeetara bidaltzen hasi zen. Gainera, Galdakaoko, Gernikako, Getxoko eta Zaratemoko Berritzeguneekin bildu gara eta hitz egin dugu, eremuko aurkezpenak edo prestakuntza-saioak egiteko asmotan, baina helburu hori oraindik ez da gauzatu, zentro horiek lanpetuta daudelako.

2005eko azaroan, poltsak material didaktikoez hornitu ondoren, Eusko Jaurlaritzaren Bilboko egoitzatik lehen hezkuntzako ikastetxe guztiei, berritzeguneei, Ama eta Aiten Federazioari, Astialdiko Prestakuntza Eskolei eta GLTB eremuko Elkartei bidali genizkien.

2006ko urtarrilaren erdialderako, EAEko lehen hezkuntzako 542 ikastetxeek proiektuaren hezkuntza-materialen lehen bidalketa jaso zuten. Gainera, EAEko udal-liburutegi guztiei «Iris eta Lila» ipuina bidali genien. Ondoren, ikastetxeei eta bestelako erakundeei material gehiago bidali genien, profesionalei prestakuntza eskaini genien eta proiektua zenbait forotara hedatu zen. Jarraian, lan horren laburpena erakusten dizuegu.

2005. urtea

Eginiko ekintzen laburpena

- «Hurbileko Erresuma» DVDaren 2000 kopia
- 2000 lan-koaderno lehen hezkuntzako hiru zikloetako bakoitzean
- 2.000 gida didaktiko irakasleentzat
- 2000 ebaluazio-fitxa (ikus eranskina)
- «7 familia mota» karta-jokoaren 2.500 karta sorta
- «7 familia mota» karta-jokoaren 1.000 poster.
- «Iris eta Lila» ipuinaren 2.000 ale
- 3.000 informazio-liburuxka
- Familiei orientazioa emateko 1.000 gida

- Materiala eraman eta biltzeko 2.000 poltsa
- Proiektua Ikastetxeei, Berritzeguneei eta beste erakundeei aurkezteko gutunak

Kanpaina hedatzeko eginiko lana

- Maiatzean ponentzia bat aurkeztu zen NARO 2005 berdintasunerako foroan, EMAKUNDEren egoitzan.
- Ekainean, batetik, kanpaina aurkeztu eta balioetsi zen, ALDARTEko bazkideen urteko batzarrean, eta, bestetik, «Hurbileko Erresuma» lana antzeztu zen, Ondarroako Kafe Antzokian.
- Urrian, Sexu bereko Gurasoen Errealitateari buruzko I. Biltzarrean, «Hurbileko erresuma» lana antzeztu zen Cáceresko antzoki nagusian, eta honako tailer honetan parte hartu genuen: «Aniztasun afektibo-sexualari eta familiarrari hezkuntzatik heltzea».
- Azaroan, materialak aurkeztu genituen eta Bizkaiko ama eta aiten Federazioari eman genizkion, erakunde horretako arduradunekin eginiko bilera batean. Arduradun horiek Euskal Herriko gainerako federazioetan banatu zituzten ondorenean.
- Abenduan, proiektua aurkeztu genuen, eta Mungialde droga-mendetasunen prebentziorako zerbitzuko arduradunei materialak eman genizkien, baita Bizkaiko astialdi-taldeei ere, Bilboko Gazteriaren Kontseiluaren egoitzan eginiko bilera batean.

Emaitzak: proiektua iritsi den zentroen kopurua

- EAEko lehen hezkuntzako ikastetxeak: 542
- Astialdiko eskolak: 19
- Baliabideetako eta irakasleen prestakuntzarako zentroak. (Berritzegunak): 18
- LGTBen elkarteak
- Euskal Herriko ama eta aiten konfederazioa

2006. urtea

Eginiko ekintzen laburpena

- Lehen hezkuntzako ziklo bakoitzerako hiru lan-koaderno 2. edizio zuzendua egitea.
- Irakasleentzako 3 gida didaktikoen 2. edizio zuzendua egitea.
- Familiei orientazioa emateko haur-sexualitateari buruzko gidaren 2. edizio zabaldua egitea.
- informazio-liburuxka berri bat argitaratzea.
- «7 familia mota» kartela argitaratzea
- Proiektua Ikastetxeei, Berritzeguneei eta beste erakundeei aurkezteko gutunak

Kanpaina hedatzeko eginiko lana

Otro proyecto que se está fraguando es la creación de un *Foro sobre Orientación e Identidad Sexual* de tipo consultivo en el que se encontrarían representantes tanto de asociaciones GLBT, Servicios de Orientación Psicosexual, Instituciones... Esperamos que pueda echar a andar este mismo año. ☺

asociaciones

elkartekak

Frída 11-11/2006

ALDARTE

LA ASOCIACIÓN ALDARTE, ASOCIACIÓN EDUCATIVA Y CULTURAL DEL GENTE DE "DIVERSIDAD SEXUAL Y DIVERSIDAD FAMILIAR"

don't be

El centro de atención a gays, lesbianas y transsexuales ALDARTE ha dado luz verde al material socio-educativo que ha elaborado bajo el título "Diversidad sexual y nuevas familias". Un proyecto dirigido a los educadores, el alumnado y sus familias que se ha repartido en más de quinientos cuentos sencillos y que en a su vez primero en la franja de edad de la Educación Primaria.

El proyecto quiere acercar la pluralidad de maneras de vivir la afectividad que tenemos los seres humanos y también la realidad de familias en las que convivimos hoy en día. Títeres, DVD, cuentos y cuadernos de trabajo, cuestionarios, resúmenes, etc., son parte de material educativo.

"El objetivo de este proyecto es impulsar acciones, en este caso, por medio de material educativo para la normalización del hecho homosexual y lesbianas, la aceptación de la diversidad sexual dentro del ámbito escolar en Educación Primaria y en el ámbito del sector a tiempo libre. La idea es normalizarlo en los niños y niñas de seis a diez años y aportar información de trabajo para educadores con los diversos modelos de familia. Se trata de impulsar un proyecto de

socialización con el fin de normalizar este hecho", afirma Amparo de Aldarte.

Desde esta asociación se ofrece un servicio de tutoría y de programas socio-educativos en la franja de seis a diez años. Aunque asegura que ha sido una tarea larga, "llegamos donde el niño está, ya sabemos que el sistema educativo es primario, no abordan los temas de lesbianas, homosexualidad, homoparentalidad... En principio pensamos en una obra de títeres y tres cuadernos de trabajo para que el alumnado trabajase en ello. Los recursos a cabo en nuestra escuela de enseñanza pública en la CAV y la empresa fue total".

Desde el comienzo han contado con la colaboración económica de Belduñe, así como de otras instituciones.

Asimismo, este proyecto ha recibido dos reconocimientos que destacan. Por un lado, es la mejor obra de teatro del primer Belduñe, y por otro, el premio Educación antes de Embarcarse. "Este premio nos ha ayudado a la obra de construcción con el proyecto, y que sea reconocido por estas instituciones siempre es agradable".

Según explica Amparo, "a lo largo del año pasado se distribuyó este material educativo a unos cuarenta centros educativos como parte de un curso a los maestros de tiempo libre. Y hasta ahora la respuesta ha sido muy interesante. Desde muchos centros nos han comunicado que los habían interesado mucho la propuesta y que iban a trabajar en las aulas. En este momento seguimos distribuyendo el proyecto socio-educativo, repartiendo algunos pequeños volantes de los que se han trabajado en grupo, aunque aún es pronto. La sensación que tenemos es que se está aceptando más y más gente para hablar de la diversidad sexual y de la homoparentalidad. Esta obra la representamos los grupos de teatro TTR (Títeres, Teatro del Buz) y El Tardón".

Proyecto pionero

Este es el primer proyecto de este tipo que se ha elaborado en Euzkadi. No había ningún proyecto para trabajar estos temas en Primaria ni aquí ni fuera de aquí, por lo que ha sido interesante. De hecho, están realizando cursos de Animación y Voluntariado para intervenir en el proyecto, se ha presentado en el "Círculo", "Tercer de género" en una franja de edad que hasta ahora no se había tratado" apunta Amparo.

Además de los cuentos sencillos, se está entregando el proyecto en centros juveniles, instituciones públicas, centros de información juvenil, sala de lectura de los equipos de intervención socio-educativa de los centros educativos de base (EBE)... de forma que el proyecto se va a difundir y extender mucho más.

El equipo que ha elaborado este proyecto ha sido amplio. Compuesto por personas del ámbito del profesorado, sociología, psicología, educación sexual, etc., y que se ha reunido en torno al género, además de la homoparentalidad", comenta desde la asociación.

"En este proyecto se habla de homoparentalidad, pero se hace mucho hincapié en el tema del género, en el tema de la mujer, en que el lesbianismo se vea... es un proyecto con unos caracteres desde los que se trata de que se acepte el tema del género, además de la homoparentalidad", comenta desde la asociación.

Además, este proyecto ha recibido dos reconocimientos que destacan. Por un lado, es la mejor obra de teatro del primer Belduñe, y por otro, el premio Educación antes de Embarcarse. "Este premio nos ha ayudado a la obra de construcción con el proyecto, y que sea reconocido por estas instituciones siempre es agradable".

Frída 11-11/2006

14

FRIDA, revista de DIVER 15

Aldarte, una asociación que trabaja para regularizar la diversidad

*Text: David Fernández
Fotografía: Miguel Ibañeta*



En el mundo hay mucha diversidad, pero en España, por desgracia, aún no se ha regularizado. En Aldarte, una asociación que trabaja para regularizar la diversidad, se trabaja para que la diversidad sea aceptada y respetada. La asociación trabaja para que la diversidad sea aceptada y respetada. La asociación trabaja para que la diversidad sea aceptada y respetada.

En el mundo hay mucha diversidad, pero en España, por desgracia, aún no se ha regularizado. En Aldarte, una asociación que trabaja para regularizar la diversidad, se trabaja para que la diversidad sea aceptada y respetada. La asociación trabaja para que la diversidad sea aceptada y respetada. La asociación trabaja para que la diversidad sea aceptada y respetada.

En el mundo hay mucha diversidad, pero en España, por desgracia, aún no se ha regularizado. En Aldarte, una asociación que trabaja para regularizar la diversidad, se trabaja para que la diversidad sea aceptada y respetada. La asociación trabaja para que la diversidad sea aceptada y respetada. La asociación trabaja para que la diversidad sea aceptada y respetada.

*lunes 23/01/06
20 minutos*



Al cole con mis dos amatus

73 escuelas vascas trabajan con material sobre los nuevos modelos de familia. Ningún centro privado ha querido participar en esta iniciativa

CRISTINA ANGULO
20 MINUTOS

Los tiempos cambian y las familias, también. Por eso, los catetos que en nuestra infancia nos divertían emparejando a la familia esquimal y a la familia bantú han pasado a la historia.

Ahora, algunos escolares vascos juegan a unir familias de dos padres, de dos razas, de padre y madre, de una mujer que adopta a una niña china...

Las cartas forman parte del material *Diversidad sexual y nuevas familias*, que el Gobierno vasco ha ofrecido, de nuevo, este curso a todos los centros públicos y privados de educación primaria.

En total, son 532 escuelas, colegios e ikastolas. Hasta el momento, sólo el 2,4%

—es decir, 13 centros públicos— ha aceptado este curso trabajar con este material pedagógico en las clases, aunque todavía no ha acabado el plazo y pueden sumarse más colegios.

El material, que ha elaborado la asociación Aldarte, cuenta con el apoyo del Gobierno vasco, que, de hecho, lo distribuye en los centros de primaria, a través de Berdindu. Es el servicio público vasco de atención a gays, lesbianas y transexuales.

A las 13 escuelas de este año hay que sumar los 60 colegios públicos que el curso pasado trabajaron la homosexualidad en las aulas, acogiendo la representación de títeres *El reino de Cerea*, protagonizada por dos chicas que se enamoran: Iris y Lila.

Una guía para adolescentes

Berdindu y Aldarte, que atienden desde la iniciativa pública y la asociativa a gays, lesbianas y transexuales, no quieren pararse en primaria. Tras ganar el premio Emakunde de Educación, quieren elaborar una guía para fomentar la tolerancia a todas las opciones sexuales en institutos y otros centros de secundaria.

Un objetivo difícil, pues la adolescencia es una época especialmente dura para gays y lesbianas porque les cuesta mucho ser respetados, sobre todo por sus compañeros. Lo dicen los estudios y lo sabe Víctor Santamaría, responsable de Berdindu, pues a su teléfono de atención llaman muchos adolescentes.

«Fue muy positiva y muchos profesores nos solicitaron más material pedagógico», dice el responsable de Berdindu, el psicólogo y pedagogo Víctor Santamaría.


El material de este curso es amplio. Pensado para niños de 6 a 12 años, además del juego de cartas, incluye un DVD de la representación de títeres y tres libros.

Santamaría matiza que donde más cuesta explicar la cuestión de la diversidad sexual es en los últimos cursos (4.º, 5.º y 6.º de primaria), «porque ya tienen muchos prejuicios». Y es que, según destaca, «la homofobia está presente en la escuela».

Ningún colegio privado ha pedido, ni el año pasado ni este, esta herramienta, que incluye fichas para abordar el tema en cualquier asignatura y dos guías: una didáctica, para el profesorado, y otra de información sexual, para padres y madres.

Sariak**Hegoak Saria, 2003. urtea****Bizkaiko Foru Aldundiaren Berdintasuna 2005 Sariaren Entrega****Emakunde 2005 Sariaren Entrega**

3. Zatia Eskola sexu aniztasunaren aurrean



Sarrera

2003. urtean, «Aniztasunaren aldeko Txotxongiloak» kanpaina abian jarri genuenean, proiektuaren bultzatzaileok kontziente ginen proiektua bakarra eta aitzindaria zela, eta egun horretara arte inork ere ez zuela martxan jarri tamaina horretako ekimenik 6 eta 12 urte arteko haurrekin orientazio sexualen gaiari heltzeko. Aldi berean, poliki-poliki konturatu ginen esku artean oso tresna baliagarria genuela, orientazio sexualen aniztasunean oinarrituriko hezkuntza gure hezkuntza-sisteman zertan den jakiteko aukera emango ligukeelako, errealitate hori gertu-gertutik ezagutzea ahalbidetuko lukeen heinean.

Gizarte-hezkuntzazko proiektua abian jarri zenetik lau urte igarotakoan, proiektuarekin zer gertatu ote zen jakin nahi genuen. Zehazkiago, proiektua abian jartzeko asmotan hainbatetan bisitatu genituen zentroetan ekimenak zenbaterainoko inpaktua eragin zuen jakin nahi genuen, baita ikastetxeetan materialak erabili zituzten edo ez jakin ere; orobat, material horiekin lorturiko gogobetetze-mailaren eta emaitzen berri izan nahi genuen.

Hori ez ezik, proiektu honekin lorturiko esperientzietatik abiatuta, hausnarketa egin nahi genuen, orientazio sexualen eta familiarren aniztasunari dagokionez lehen hezkuntza zertan den aztertzeke.

Xede horri begira, ebakuazio-prozesua abiatu genuen, iritziak biltzeko, eta, esperientzia oinarritat harturik, proiektua garatu den baldintza orokorrak eta hezkuntza-baliabideak nola erabili diren aztertzeke.

Ebaluazio horrek honako hauek ahalbidetuko ditu:

- Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan banaturiko hezkuntza-materialen benetako erabilera ezagutzea.
- Lehen Hezkuntzako irakasleek proiektuarekiko erakutsitako gogobetetze-maila aztertzea.
- Proiektua Ikastetxeetako curriculum-proiektuetara zenbateraino egokitzen den aztertzea.
- Orientazioen aniztasunean hezteko hobekuntzak identifikatzea
- Orientazioen aniztasunean hezteko arazoak identifikatzea
- Orientazioen aniztasunean hezea errazten duten faktoreak identifikatzea
- Orientazio sexualen aniztasunari dagokionez hezkuntza-arloan dauden premiei buruzko txostena egitea, etorkizuneko jardunak proiektatzeko.

Une egokia zen, beraz, irakasleekin batera ebaluazio bat aurrera eramateko, eta, horren haritik, EAEko lehen hezkuntzako ikastetxe guztietan jarri genuen abian. Ebaluatutako erakundeek funtsezko parte-hartzea izan dute ebaluazio horretan, eta, horri esker, ebaluazioa kalitatezkoa, parte-hartzailea eta bizia izan dela esan dezakegu.

Informazioa biltzeko honako teknika hauek baliatu dira:

Oinarritzko galdeketa, galdesorta baten bitartez: hezkuntza-materialak jaso dituzten ikastetxeetako ordezkarien artean egin zen, hots, EAEko lehen hezkuntzako ikastetxe publiko eta itunpeko guztietako ordezkarien artean. Galdeketa horretan, irakasleei honako hauei buruzko informazioa eskatu genien: hezkuntza-paketea jaso zutela zekiten edo ez, jasotako materialak erabili zituzten, ikastetxean material horiek edukitzea begi onez ikusi ote zuten eta erabaki horren arrazoiak zein ziren. (Ikus I. ERANSKINA).

Galdeketa honako bi hauetarako izan da baliagarri: batetik, hezkuntza-materialak erabili dituzten ikastetxeen benetako kopurua ezagutzeko eta materialak zergatik erabili dituzten jakiteko, eta, bestetik, lorturiko datuen lehen azterketa kualitatibo bat egiteko.

Galdeketa egiteko, honako bitarteko hauek erabili ziren: bereziki, ohizko posta, telefonoa eta posta elektronikoa. Aurrerago ikusiko dugunez, erantzunak esanguratsuak izan badira ere, ekimenak ez du guk nahi adinako parte-hartze maila lortu.

- **Sakoneko elkarrizketak egitea:** hasiera batean, sakoneko 20 elkarrizketa egin nahi ziren, honako pertsona hauekin:

- Ikastetxeetako 15 ordezkari, honako irizpide hauen arabera hautatuta: geografikoa, EAEko hiru lurralde historikoak aintzat hartuta; landakoa-hirikoa, hau da, eremukako banaketa lurralde historiko bakoitzaren barruan; ikastetxearen tamaina; ikastetxearen aniztasun soziokulturala; eta proiektua ikastetxean landu den edo ez.
- ALDARTEko eta BERDINDUko 4 teknikari, proiektua pentsatu eta abian jarri dutenak.
- Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saileko teknikari bat. 2007. urtean, harekin egon gara harremanetan, hezkuntza-materiala banatzeko.

Sakoneko 8 elkarrizketa egin dira, 6 irakasleen artean eta 2 ALDARTEko eta BERDINDUko taldekideen artean. Ezinezkoa gertatu da helburua bete-betean lortzea, nahiz eta ALDARTEk hainbat ahalegin egin ikastetxeetako irakasleekin eta Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzaren teknikariek harremanetan jartzeko.

Elkarrizketak erdi egituratuta zeuden, eta grabatu eta transkribatu ziren azterketa kualitatiboa egiteko. Batez beste, ordubeteko iraupena izan zuten, eta ikastetxeek egin zituzten, ALDARTEren eta BERDINDUren egoitzetan, 2008ko urtarriletik apirilera bitarte (ikus II. eranskina).

Elkarrizketetan bilduriko informazioa balio handikotzat jotzen da, eta eskolari eta orientazioen aniztasunari buruzko azterketaren oinarria da. Izan ere, elkarrizketa horietatik honako hauei buruzko informazio zehatza jaso genuen: hezkuntza-materialak (bakoitzaren balioa, kalitatea, gogobetetze-maila eta abar); ikasleek hezkuntza-materialak onartu dituzten; materialak ikastetxearen curriculum-planteamenduetara zenbateraino egokitzen diren; proiektua abian jarri izanak ikastetxean eta inguruneetan izan duen eragin-maila; eta proiektuak zenbaterainoko balioa duen ikastetxean abusuak prebenitzeko, berdintasunaren, elkarrekiko errespetuaren, balioetan oinarritutako hezkuntzaren eta elkarbizitzaren alde lan egiteko, eta, azkenik, ikasgelako lanaren zailtasunak detektatzeko eta beste zenbait jardun edo proposamenen bitartez egin litezkeen hobekuntzak proposatzeko.

Elkarrizketatutako irakasleek ezin dute inondik inora hezkuntza-komunitate osoa ordezkatu. Horrek ez du esan nahi, ordea, elkarrizketetan bilduriko informazioak balio handikoak ez direnik.

Galdesorten eta sakoneko elkarrizketen bitartez irakasleek emandako iritziek aditzera ematen digute, labur bada ere, lehen hezkuntzako ikastetxeak zer egoeratan dauden aniztasun afektibo-sexualari eta familiarrari dagokienez.

Ebaluazio hau aurrera eramateko Eusko Jaurlaritzako ongizate sailaren diru laguntza izan dugu.

Bihotz-bihotzetik, gure eskerrik beroenak ebaluazio honen garrantziaz jabetu ziren eta eskuzabaltasun osoz ebaluazio horri beren denboraren zati bat eskaini zioten pertsona guztientzat. Badakigu haientzat aniztasunean oinarritutako hezkuntza bultzatzea garrantzizkoa dela. Berriz ere, eskerrik asko.

Ebaluazio kuantitatiboa**Zer gertatu da «Sexu-aniztasuna eta familia berriak» proiektuarekin?****Galdesorta**

Galdeketa egiteko, lehenik eta behin telefonoz deitu genien ikastetxeetako zuzendariei. Metodo horren bitartez 70 galdesorta egin ziren, hainbat dei egin ondoren.

Telefono-metodoaren moteltasunak eta zailtasunek¹ ohiko posta erabiltzea hobe genukeela pentsarazi ziguten. Horretarako, aurkezpen-gutun bat prestatu genuen, eta Ikastetxeei bidali genien zigilua eta ALDARTEren helbidea zeraman gutun-azal batekin, erantzundako galdesorta bidal ziezaguten. Bi bidalketa egin ziren, 2007ko ekainean eta irailean, jarraian zehazten diren lehen hezkuntzako 531 ikastetxeentzat:

- Ikastetxe publikoak: 324 (% 61)
 - Araba: 55
 - Bizkaia: 166
 - Gipuzkoa: 103
- Ikastetxe pribatuak: 207 (% 39)
 - Araba: 26
 - Bizkaia: 102
 - Gipuzkoa: 79

Galdesortak honako erantzun hau izan du:

- 108k erantzun dute (% 19,7)
- 423k ez dute erantzun (% 80,3)

Galdesortari erantzun dioten 108 ikastetxeak honela banatzen dira geografikoki:

- Araba: 43 (%41)
- Bizkaia: 38 (%35)
- Gipuzkoa: 27 (%24)

Jarraian, Ikastetxeek galdesortaren galdera bakoitzari emandako erantzunak aurkezten dira.

a galdera: Jaso al duzue hezkuntza-materialen poltsa?

Galdera honen bitartez zera ikertu nahi genuen, ikastetxeetan ba ote zekiten proiektuaren hezkuntza-materialen poltsa jaso zutela. Emaitzak honako hauek izan ziren:

Probintziak	Badakite jaso dituztela	Ez dakite jaso dituztenik	Guztira
Araba	39	4	43
Bizkaia	35	3	38
Gipuzkoa	24	3	27
Guztira	98	10	108

a.1 galdera: Jaso baduzu, noiz jaso duzu?

Galdera honekin jakin nahi genuen ikastetxeetan gogoratzen ote zuten materialak jaso zituzten eguna.

Oro har esan dezakegu ikastetxeetan bazekitela hezkuntza-paketeak zer egunetan jaso zituzten. Zenbait ikastetxetan, material didaktikoak bi urte jarraian jaso zituztela ere gogoratzen zuten. Hori bat dator ALDARTEk eginiko bidalketekin: lehen bidalketa 2005eko amaieratik 2006ko hasierara bitarte egin zen, eta bigarrena 2006ko abendutik 2007ko otsailera bitarte, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren eskutik.

¹ Zuzendaria ez zegoen, berriz ere deitu behar genuen eta orduan ere ez zegoen edo izugarri lanpetuta zegoen, ordukin ez genuen asmatzen eta abar.

b galdera: Erabili al dira materialak ikasgelan?

Materialak jaso dituzten ikastetxeetatik:

Probintziak	bai	%	ez	%	ikastetxeak guztira
Araba	6	%16	33	%84	39
Bizkaia	7	%20	28	%80	35
Gipuzkoa	6	%25	18	%75	24
Guztira	19	%20	79	%80	98

Hezkuntza-materialak ez erabiltzeko arrazoiak

Jarraian, material didaktikoak ez erabiltzeko arrazoiak berri eman nahi dizuegu. Arrazoi bideek informazio-karga handia dutenez, egokitzen jo dugu bere horretan uztea eta zuei oso-osorik jakinaraztea. Hobeto irakurtzeko kategorietan sailkatu ditugu, probintzien arabera aurkeztuta.

A) Denborarik eza eta horren ondorioak (itomena, material gehiegi eta abar):

Araba

- Ez dugu astirik, litekeena da hurrengo urtean egitea
- Ez dugu astirik, eta gauza asko ditugu egiteko
- Ordezkoek ezin dute gai horien ardura hartu, ez dute astirik, aurrerago
- Gauza asko iristen dira
- Itota gaude hainbeste proiektuekin
- Aurten gauza gehiegi dauzkagu
- Material gehiegi iristen zaigu, eta denetarik dago

Bizkaia

- Ez dugu astirik materialak aztertu eta gure curriculumera biltzeko
- Aurten ez dugu erabiliko astirik ez dugulako
- Ez dugu astirik iristen zaigun guztia lantzeko

Gipuzkoa

- Denborarik eza
- Ikastetxera proposamen ugari iristen dira
- Ez dugu materialak aztertzeko astirik izan. Datorren urtean egin nahi dugu.
- Gauza asko ditugu esku artean, eta hor dauzkagu, zintzilik
- Berandu iritsi da; dagoeneko beste proiektu batzuk hasi ditugu.
- Programa erabiltzeko astirik ez dago.
- Zaila da dena sartzea, eta gauza asko iristen zaizkigu.

B) Materialak urteko planean bildu ez direnez, orain zaila da haiekin lan egiteko tarte bat egitea:

Araba

- Ikasturtea planifikatua dago, eta hasia zegoen jada, materiala iritsi denerako

Bizkaia

- Berandu iritsi da, eta ezinezkoa gertatu da urteko tutoretza-planera biltzea
- Tutoretza-saioetarako programatuta zeuden beste material batzuk erabiltzen ari dira
- Beste proiektu batzuetan murgilduta geunden, eta ezinezkoa da proiektu guztiak aurrera eramatea
- Ez dugu astirik materialak aztertzeko programazioak egin aurretik
- Agian beste material batzuk erabiltzen direlako

Gipuzkoa

- Zaila da gauzatzea behin urteko plana egin ondoren
- Ikasturtea hastearekin batera, beste material batzuk erabiltzen hasi gara. Beste era batera prestatua genuen.

C) Axolagabekeriak jarrerak irakasleen aldetik:**Araba**

- Ez dugu hain egituratua dagoen material baten beharrik, gai asko dauzkagu.
- Material gehiegi iristen zaigu, eta denetarik dago
- Inork ez du eskatu gai horretan sakontzea
- Beste lehentasun batzuk dauzkagu

Bizkaia

- Hezkuntza-komunitateak erabateko ezaxolagabekeria erakutsi du, behin materialak pedagogia-batzordeko irakasleei zein Gurasoen Elkarteko ordezkariari aurkeztu ondoren
- Irakasleek ez dute horren berri

D) Sexu-aniztasuna beste material batzuetan lantzen delako ustea izatea:**Araba**

- Nahiko proiektuan daude. Erabiliko dira, aurrerago agian
- Tutoretzan beste proiektu batzuk dauzkagu, Nahiko proiektua, esaterako

Bizkaia

- Eskura dugun material osagarria antzekoa da; esaterako, tutoretza-programan hasiak gara gai horiek lantzen

Gipuzkoa

- Nahiko programan dago

E) Ikasgelan gai horiek lan egin nahi ez izatea:**Bizkaia**

- Irakasle batzuek ez dute nahi ikasgelan gai horiek lantzea

F) Material horien beharrik ez ndago:**Araba**

- Behar direnean erabiliko dira
- Inbentariatu dira eta apaletan kokatu, behar direnerako.
- Arrazoi berezirik ez dago. Urte batzuetan erabiltzen da, eta beste batzuetan ez.
- Irakasleei aurkeztu dizkiegu eta ez dituzte beharrezko ikusi, premia sortu arte.

Bizkaia

- Materialak aztertzeo eta erabiltzeo astirik ez dago, beharrezkoak ez direlako
- Klaustroan materiala aztertu dugu, baina ikastetxean familia berririk ez dugunez, oraingoz ez dugu landu behar.

G) Materialak ikastetxeko egituren artean banatzen dira, baina koordinaziorik edo jarraipenik gabe:**Araba**

- Orientaziogunean dauzkate
- Pasatu dute eta liburutegira eraman, eta zerbait erabiliko dute
- Ikastetxeko aholkulariari eman diogu
- Etika-irakasleei eman diegu, baina ez dute aztertu oraindik
- Irakasle-gelan utzi zen
- Irakasleen esku dago
- Ikasketaburuari eraman diote
- Hezkuntza bereziko irakasleei eraman diote

Bizkaia

- Begirada bat eman zaie; aholkulariaren gelan daude, balioak lantzen dituzten materialekin batera.

H) Ikasturte honetan ez dira erabiltzen, datorrenean bai:**Araba**

- Ikastetxeko aholkularia materialak aztertzen ari da, datorren urtean erabili edo ez erabakitzeko
- Datorren urtean materialak gehiago erabiltzea eta irakasleengandik gertuago egotea espero da. 1. eta 2. zikloetan, tutoretzetara eraman dute.
- Irakasleak materialak aztertzen ari dira

Bizkaia

- Datorren ikasturterako utzi dugu

Gipuzkoa

- Datorren ikasturtean erabiltzeko asmoa dugu
- Materiala pasatu dugu, lehen zikloan familiaren gaiari berriz ere heltzeko
- Litekeena da aurten erabiltzea

I) Ikastetxeko curriculum-proiektua ez doa ildo beretik:**Araba**

- Curriculum-proiektua beste ildo batetik doa
- Ikastetxeak bere sexualitate-afektibitate plana dauka, Urteko Plan Orokorren barnean
- Bi urtean behin, goi-zikloan sexu-hezkuntza lantzen da, hitzaldi batzuen bitartez.

Bizkaia

- Lehen zikloan materialaren zati bat erabiltzen da, baina beste ziklo batzuetan ez da erabiltzen, gure ideien familia-zentzuarekin bat ez datorrelako

J) Tutoretzetan erabiltzen dira, ez ikasgelan:**Araba**

- Irakasleek balioekin zerikusia duten gaiak kontsultatzen dituzten apalean utzi dira materialak.
- Zenbait fitxa erabili dira, arazo edo gatazka jakin batzuei heltzeko.

Bizkaia

- Begirada bat eman zaie eta aholkulariaren gelan utzi dira, balioak lantzen dituzten materialekin batera.

K) Zailtasunak materialarekin:**Bizkaia**

- Ipuina luzeegia da
- Ariketak egin aurretik, ipuina irakurri behar da

Gipuzkoa

- DVDa ez dabil ondo, zenbait unetan irudiak gelditu egiten dira
- Gure ustetan, fitxak ez dira erakargarriak

L) Gai afektibo-sexualak ez dira planteatu ikastetxean:**Bizkaia**

- Tutoretzako ekintza-plana prestatzen ari gara, eta hezkuntza afektibo-sexualeko gaiak planteatu gabe daude oraindik.

Materialak non eta nola erabili diren

Jarraian, materialak erabili dituzten 19 ikastetxeetan material horiek non eta nola erabili diren aurkezten dizuegu, probintzien arabera sailkatuta. Erantzunak ez dira ukitu, hots, ikastetxeetako arduradunek eman zituzten bezala utzi dira.

Araba

- 2. eta 3. zikloetan
- Guztietan, tutoreei banatu genien. Zeharkakoetan planteatu dute, etikan bereziki
- Ipuina liburutegiko liburuen artean dago
- Kartak eta ipuina erabili dira, baina ez sistematikoki eta ziklo guztietan; koadernoak ez dira erabili
- Zerbait landu dute baina ez sistematikoki
- Karta sortak gehiago erabiltzen dituzte

Bizkaia

- 2. eta 3. zikloetan
- Lehen zikloan materialaren zati bat erabiltzen da, baina beste ziklo batzuetan ez da erabiltzen, gure ideien familia-zentzuarekin bat ez datorrelako
- Joan den urtean zerbait egin zen 2. zikloan
- 1. eta 2. zikloetan; 3. zikloan beste proiektu bat sartu da.
- 1. eta 3. zikloetan

Gipuzkoa

- 3. zikloan
- Ziklo guztietan
- 1. zikloan
- 2. eta 3. zikloetan
- Kartak haur-zikloan. Kartak, DVDa, fitxak eta abar beste ziklo batzuetan erabiltzeko asmoa dugu

c galdera: Begi onez ikusi al dute irakasleek material hori eskura edukitzea?

Galdera horri honako erantzun hauek eman dizkiote:

Probintziak	bai	ez	ez dute erantzun	Guztira
Araba	24 (%62)	1 (%2)	14 (%36)	39
Bizkaia	22 (%63)	4 (%12)	9 (%25)	35
Gipuzkoa	15 (%63)	-	9 (%37)	24
Guztira	61	5	32	98

IRAKASLEEK MATERIAL HORIEK ESKURA EDUKITZEA BEGI ONEZ EZ IKUSTEKO ARRAZOIAK

Araba

- Aurreratuegia da lehen hezkuntzako haurrentzat

Bizkaia

- Informazio-prestakuntza mota hori familien ardura dela uste dugu, eta ikastetxeek ezin dute inposatu familien borondatearen eta askatasunaren gainetik.
- Zuzendaritza-taldeak ez zuen irakasleen kontzientzia-eragozpena onartu. Beste tutoretza-programa batzuk erabiltzea nahiago da, hezkuntza afektibo-sexuala eta familia- eta kultura-aniztasuna emateko
- Ezin da ikasturte akademiko honetako urteko planera bildu.

IRAKASLEEK MATERIAL HORIEK ESKURA EDUKITZEA BEGI ONEZ IKUSTEKO ARRAZOIAK

Materialak praktikoak dira:**Araba**

- Materiala ondo datorkigu
- Tresna gisa erabil daiteke
- Bloke trinkoa da: ipuina, DVDa, ...material osoa da
- DVDa iluna da, eta gutxien gustatu da; kartak, aldiz, primeran daude.
- Materialak ondo eginda daude
- Bideoa lasaiegia da; ikuspegi ona du, baina motela da
- Koadernoak ondo daude
- Zikloak ongi sekuentziatu dira
- Zenbait material zenbait unetan erabil daitezke
- Ongi landuta daude
- Antzezpena gogoan zuten eta ipuinarekin uztartu ziren. Ipuina irakurri dietenean, familiei buruzko elkarrizketak sortu dira
- Egokitzen jotzen dugunean lan dezakegu jarduera

Bizkaia

- Gai hori tutoretza-saioetan sortzean erabil daiteke materiala
- Gai horiei buruzko aholkulari-lana egiteko da baliagarri, materialak balio handikoak eta interesgarriak baitira
- Ongi eginda daude. Material asko. Beste familia mota batzuk ere lan litezke: guraso bananduak, bakarrik dauden aitak/amak eta abar

Gipuzkoa

- Eskertzekoa da materiala bidali izana, oso praktikoa da, programa orokorrera biltzen ahaleginduko gara.
- Erabil daiteke, oso material osoa delako.
- Beharrezko lana da. Hezkuntza-proiektu baten barnean lantzen da

Sexu-aniztasunari buruzko jakintza errazten du:**Araba**

- Oso informazio interesgarria dakar
- Gai berriak lantzen dira
- Beste aukera bat da

Bizkaia

- Afektibitate-aukera errespetatzearen aldeko ikuspegia dakarte
- Ongi etorriak dira tutoretza-ekintza lantzeko baliagarri gerta daitezkeen material berri guztiak
- Zenbait hausnarketa egiteko dira baliagarri.
- Unean-unean, gai jakin batzuk beste ikuspegi batetik lantzeko zaigu baliagarri

Gipuzkoa

- Beste orientazio batzuen aldeko ezagutza, errespetua eta eskubidea errazten dituzte
- Pertsona desberdinenganako errespetua errazten du.

Ikaslearen sexu-nortasunaren kontzientzia hartzea indartzen du:**Gipuzkoa**

- Materialak baliagarri gertatu dira ikasleen sexu-nortasunaren kontzientzia hartzea indartzeko

Familia berriak ezagutzea ahalbidetzen du:**Araba**

- Beharrezko ikusten da, familiak asko aldatzen ari direlako

Bizkaia

- Gure gizartean dauden familia mota guztiak ezagutzeko eta errespetatzen ikasteko
- 1. zikloan familia eta familiaren osaera lantzen dira
- Ikasleek gizarte-errealitatea ezagutu eta onartu behar dute. Ikastetxean familia mota desberdinak daude
- Gaur egun zenbait familia mota aurkitzen ditugu inguruan, eta materiala eskura izatea betiere izaten da egokia
- Familiak eta gizartea aldatzen dira eta ikasgelan horri erantzuten asmatu behar dugu

Gipuzkoa

- Gizartean familia berriei heltzeko aukera ematen digu, sexu-aniztasuna kontuan hartuta

Normalizatzen laguntzen du**Bizkaia**

- Ikasleek gizarte-errealitatea ezagutu eta onartu behar dute. Ikastetxean familia mota desberdinak daude
- Egoera berrietara egokitzeko balio du
- Oraindik erabili ez baditugu ere, aniztasuna normaltasunez bizitzeko garrantzia ikusten dugu

Gipuzkoa

- Gaur egungo gai bat lantzen laguntzen du, eta eztabaidarako ideiak ekartzen. Errealitate polemiko bat normalizatzen du

Aldez aurretik planteaturiko arloetako lanaosatzen du**Bizkaia**

- Hezkuntza afektibo-sexualaren gaia orain gutxi bildu dugu gure tutoretzara; sexu-aniztasunaren gaia, aldiz, biltzeke dugu oraindik

Gipuzkoa

- Materiala aztertu ondoren, arlo hori ikastolaren proiektuan lantzen dela ohartu gara. Hala ere, oso egokia iruditzen zaigu eskura duguna osatzeko.

Bat dator ikastetxearen curriculum-errealitatearekin:**Araba**

- Ikuskatu genuen eta gustatu zitzaigun

Bizkaia

- Zerikusi handia du gure proiektuarekin eta guk lantzen ditugun gai jakin batzuekin. A urkezpena egin nahi dugu, eta programazioan txertatu
- Irakasleek begi onez ikusiko lukete (materiala oraindik jaso ez duten ikastetxe batean)
- 3. zikloko sexu-hezkuntzan proiektua bat dator eskola-curriculumarekin

Gipuzkoa

- Bat dator ikastetxearen errealitatearekin

Gai horri buruzko materialen premiari erantzuten dio:**Araba**

- Positiboa da, material espezifikorik ez zegoelako
- Horrelako materialik ez genuen
- Komenigarritzat jo da gai hori landu beharreko tutoretza-saio batzuetan materiala erabiltzea

Gipuzkoa

- Gizartean nabari diren eta ondorioz landu beharrekoak diren egoera jakin batzuei naturaltasunez heltzen zaie. Horrelako material askorik ez dago; guk, behintzat, bat ere ez daukagu.

Haurrentzat erakargarria da:**Bizkaia**

- Materiala lagungarria da gai jakin batzuk lantzeko; gainera, erakargarria da, eta haurrek gogoko dute

Ebaluazio kualitatiboa eskola sexu aniztasunaren aurrean

Sarrera: ikasgelan sexu-aniztasunaren alde egitearen esanahia

«Haurrei betiere esaten diegu aniztasuna aberastasuna dela, eta gizarte bat izan daitekeenaren ikuspegia zabaltzea izugarri ona dela haientzat. Izan ere, talde barruan ere, haurrak nor beren sexualitateaz jabetzeaz, batzuek alde batera egingo dute eta beste batzuek beste batera, eta horren ildotik, dagoeneko kokoteraino gaude bere homosexualitateaz jabetzeaz zeharo traumatizatu direnen hitzak entzuteaz, areago oraindik familiarekin eta hurkoenekin ere horri buruz hitz egiteko aukerarik ez dutela diotenean. Emozioak berenganatzeko eta bideratzeko ahalmena irakatsi nahi diegu, emozio guztiak onak eta aberatsak direla jakinarazi, eta emozioak ematen digun indarra eraikitzeke baliatu behar dugula. Hortaz, sexu bereko pertsona batekin maitemindu garela ohartzean, emozio hori onartu behar dugu, eta taldearentzat aberasgarri izango dela ulertu, uniformitatea baita pobretzen gaituena, garen bezala hazi behar dugu, eta nork bere burua balioesten, maitatzen ikasi, ...»²

Horrela mintzo den emakumezko irakasleak ikasgelan sexu-aniztasunari heltzeko garrantzizkotzat jo ohi diren ideiak laburbiltzen ditu:

1. Aniztasuna, pertsonok bizi dugun sexualitateari datxekion oinarritzko ezaugarri konsubstantziala da. Horrek esan nahi du sexu-aniztasuna ez dela azaldu edo justifikatu behar, hainbat diziplina akademikorik eta pentsamendu-sistemak (eliza, medikuntza, psikiatria eta abar) hainbatetan ahalegindu eta ahalegintzen diren bezala, homosexualitatea, lesbianismoa eta transexualitatea azaltzeko alferrikako teoria ugariak garatuz. Horren haritik, aniztasuna gure sexualitateari datxekion zerbait baldin bada, heterosexuala izatea homosexuala, lesbiana edo transexuala izatea bezain «naturala» dela pentsatu beharko dugu. Sexu-aniztasuna egon badagoela dakigu, besterik ez, horixe da sexualitate-arloan ziurta dezakegun gauza bakarra, eta, munduko beste hainbat aniztasun bezala (botanika, animaliak, janari-gustuak eta abar) halakotzat onartu behar dugu, zergatik gertatzen den justifikatu beharrik gabe, loreen munduari buruzko telebista-programa batek, hainbat lore klase izatearen arrazoia azaldu beharrean, aniztasuna besterik gabe erakusten eta aipatzen duen bezala, esaterako.
2. Aniztasuna onartzen badugu, hezitzailearen eginkizuna sexu-aniztasunari dagokionez gure gizarteak mendetan eduki dituen harremanak aldatzea izango da, hau da, gertaera horren aurrean baliatu ohi ditugun ideiak eta balioak, aurreiritzietan oinarritzen direnak, eraldatu behar ditu hezitzaileak. Horretarako, legeak eta gizarteak azken urteetan egin dituzten aurrerapen handiak hartu behar ditu kontuan, ezin baitezakegu esan gaur egun eskubiderik eza edo gizarte-diskriminazio argi eta nabariak nagusi direnik arlo horretan. Izan ere, gay, lesbiana eta transexualak nahiko lasai bizi daitezke gaur egun, beren bizi-proiektuak garatuz eta proiektu horiei uko egin gabe. Bizi garen une historikoa oso positiboa da, eta ikasleei mezu hori helarazi behar diegu. Kasu honetan eraldatzeko hezkuntza-proiektu bat abian jartzea justifikatzen da ez baldintzak oso negatiboak direlako, baizik eta, historikoki egokia den gizarte-eta politika-egoera batetik abiatuta, aurrera egin beharra dagoelako, aniztasunari dagokionez indarrean jarraitzen duten eta aurreiritzietan oinarrituta dauden jarrera eta balioak eraldatzeko, errekonozimendua erabatekoa izan dadin lortzearen.
3. Pedagogia-lana «heterosexualitatearen presuntzio unibertsal» zalantzan jartzera eta ezabatzerako bideratu beharko litzateke, gure ustez aurreiritzietan iraunkorra eta sotilena delako. Horren arabera, pertsona oro heterosexuala dela uste dugu besterik adierazi ezean, hau da, norbait lesbiana, gay edo transexuala dela pentsa dezagun norbait horrek argi eta garbi adierazi behar digu hori edo oso nabarmen erakutsi behar du, ordura arte pertsona horrek ildo horretatik adierazitako guztiak ihes egin baitigu. Hortaz, aurreiritzi horren aurrean adi-adi egon behar dugu betiere. Litekeena da irakasleek ikasle gay eta lesbianak dituztela ez jakitea, homosexualitatea argi eta garbi adierazi ez badute, baina betiere pentsatu behar dute litekeena dela ikasleen artean

beren orientazio sexuala eta genero-nortasuna oso adin goiztiarretatik zailtzan jartzen hasi diren haurrak edukitzea.

4. Hezitzaileek ziurtatu behar dute ikastetxeak baldintza egokiak biltzea, ikasleei gutxienez honako hauek ahalbidetzeko:
 - Sexualitatearen arloan sentitzen dutena eta desira dutena gauza dezaketela pentsatzea.
 - Sexualitatea heterosexualitate-formatutik ateratzea.
 - Sexualitatea adierazten den ñabardura ugariak atzematea.
 - Aniztasuna interesgarria eta ona dela balioestea, defendatzea merezi duen zerbait dela alegia.
 - Zenbait haurrenganako intolerantzia-jarrerak tratatu txarrak edo bazterkeria deuseztatzea.
 - Gay, lesbiana edo transexuala izatea arraroa, ohiz kanpokoa edo berezia izatea dela ez pentsatzea.
5. Beharrezkoa da, halaber, errespetu-kontzeptua sakonetik lantzea, baina ez komunikabideetan sarri erabilitako «*nik errespetatzen zaitut, baina...*» errespetuzko esapidea erabiliz. Errespetuari ezin zaiolako baldintzarik jarri, horrek pertsonen sexualitatea adierazteko askatasuna mugatzen baitu, baldintzak jarrita, azken finean, pertsona horiek «desberdintzat eta ohiz kanpokotzat» jotzen jarraitzen dugulako. Irakasleek errespetua sustatu behar dute, honako hauetan oinarrituta:
 - Tabuak, isiltasunak edo lotsak ez dira areagotu behar.
 - Haurrei seguru eta harro sentitzen lagundu behar diegu, beren autoestimazioa handituz, etxean bizitzen dutenari edo sentitzen dutenari dagokienez.

Ikasgelan sexu-aniztasunarekin zerikusia duten edukiak aztertzearen garrantzia

Giza sexualitatea gizarte-konstruktua da, esanahiez, sinbolismoez eta gizarte-zereginenez beteak; komunikatzeko eta gizartean elkarreragiteko modu bat ere bada, baita pertsonen arteko ezagutzarako, hurbiltzerako eta harremanetarako bitartekoa ere. Azken batean, pertsonok plazerera iristeko irekia dugun bidea da sexualitatea.

Generoa ere gizarte-konstruktua da. Jaiotzean, gure gorputza «gizonarena» edo «emakumearena» izango da, eta bereizketa hori funtsezkoa izango da, hainbat gauza baldintzatuko dituelako etorkizunari begira: gizartean hartuko dugun tokia, zer egin dezakegun eta zer ez, bizitzan zer proiektu egin ditzakegun, etorkizunean gure sexualitatea nola garatuko dugun eta abar.

Gure gizartean, generoari zein sexualitateari dagokienez oso hesi zorrotzak ezartzen dira gizonezkoa izatearen eta emakumezkoa izatearen artean, eta balioespen desberdinak egiten dira nork bizi duen sexualitatearen arabera. Hala, heterosexualitatearekin bat ez datozen harreman afektiboak edo praktika sexualak garatzeak gizarte-estigmatizazioa dakar berekin. «Gizona» edo «emakumea» izaki halakotzat ez jotzekoak edo genero batetik bestera igarotzekoak genero-rolak urratzea eragiten du.

Sexismoa, heterosexismoa eta gay, lesbiana eta transexualenganako fobia

Gizona edo emakumea izatearen esanahiaren inguruan gure kulturaren nabari den joera matxistaren arabera, heterosexualitatea homosexualitatea ukatuz berretsi behar da. Maskulinitasuna eta feminitatea heterosexualitatearekin lotzen dira. Gizonen eta emakumeen arrakasta heterosexualitatearen bidez adierazten da, besteak beste. Hala, maskulinitasuna patriarkala sendotzen da, eta horrek, gizonen nagusitasuna eta emakumeen mendetasuna bermatu ez ezik, gay, lesbiana eta transexualen aurkako jarrera eta aurreiritziak ere sustatzen ditu biztanleriaren sektore handietan.

Homofobiak, lesbofobiak eta transfobiak gay, lesbiana eta gizon eta emakume transexualen aurkako jarrerak adierazten dituzte. Adierazpen arbitrarioa da, eta pertsona horiek aurkakotzat edo anormaltzat jotzea dakar berekin, baita haiek gutxiestea ere. Fenomeno konplexua da, hainbat egoera biltzen dituelako, guztiek ere ezinikusiarekin zerikusia duten hainbat modu adierazten dituztenak, ez soilik gay, lesbiana eta transexualak begira, baita arau heterosexualarekin bat ez datozen gainerako pertsonak begira ere.

Fobiak sexismoaren adierazgarri ere badira, eta, horren haritik, «generoaren zaintza» moduko bat antolatzen dute, gizontasuna femeninoaren ukazioaren-aurkakotasunaren arabera egituratu behar delako, baina baita homosexualitatearen eta heterosexualitatearen aurkako jarrearen arabera ere.

Hezkuntza-arloan egin diren hainbat azterlanek aditzera ematen dutenez³, homofobia mutilen zein nesken artean nabarmentzen da. Azterlanen arabera, homofobiaren ondorio garrantzitsuenetako bat gizonen artean oro har adiskidetasunezko harreman esturik ez izatea da, baita gizonek beren berdinen taldean afektibitatea adierazteko zailtasunak izatea ere. Gainera, gizonen artean sentimenduak adieraztea ukatzen duten mekanismoak sorrarazten ditu homofobiak, eta horrenbestez maskulinitasunaren ikusmolde patriarkalak aldatzeko oztopo nagusietako bat da. Maskulinitasunaren ideologia patriarkala iraunarazteko oinarritzko tresnetako bat da homofobia.

Sexu-hezkuntza gure hezkuntza-sisteman

Argi dago sexu-hezkuntzaren ikuspegitik oro garrantzitsua dela gai hori hasiera-hasieratik lantzea, eta ekimen hori bi noranzkotan bideratu behar da. Batetik, garrantzizkoa da ikastetxean gaiari heltzea, gaiari buruz hitz egitea eta horrela merezi duen garrantzia ematea, ikasleek erreferentzia egoki eta zehatzak izan ditzaten desira-orientazioa beren nortasunean integratzerakoan. Bestetik, talde osoak oinarririk gabeko mitoak bazter ditzan, desiraren orientazioaren oinarritzko elementuen berri izan dezan eta jarrera positibo eta toleranteak gara ditzan, justifikaziorik gabeko diskriminazioak saihesteko.

Desiraren orientazioa eta transexualitatea oso goiz antolatzen dira haurrengan, eta adostasuna nahikoa zabala da horren inguruan. Oro har, desiraren orientazioa portaeren aurretik garatzen da. Horren haritik, ALDARTEn izan dugun eskarmentuari esker zera ikasi dugu, homosexualitatea, lesbianismoa eta heterosexualitatea sexualitatea bizitzeko moduak direla, eta oso adin goiztiarretan ager daitezkeela, eta ez bakarrik nerabezarotik aurrera, haurren inguruan dabilzan heldu gehienek usten duten bezala. Transexualitateari dagokionez, aipatzekoa da transexualek normalean haurtzarotik bizi dutela, orientazio sexuala baino argiago⁴.

Elkarriketaturiko irakasle batek honako hausnarketa hau egin du horren inguruan⁵:
«haur batzuk homosexualak dira, eta gainera adinak ez du axola, oraindik bada haurrak txikiak eta leloak direla eta horregatik zer ematen zaien kontu handiz begiratu behar dela pentsatzen duenik... haatik, telebistaren aurrean jartzea normalizat jotzen dugu, albisteak beren gordintasun eta gogortasun osoan ikusi behar badituzte ere... eta gainera ikasgelan ez da horretaz hitz egiten, eta normalizat jotzen da, azken batean hori baita gertatzen ari dena...»

Gure hezkuntza-sisteman, 12 urtetatik⁶ heltzen zaio sexu- eta genero-aniztasunari; lehen hezkuntzak ez du oraindik curriculumera bildu, eta orain artean ez du horretarako tresna pedagogikorik eskura eduki. Argi dago hutsune hori betetzen hasi behar dugula, eta errealitate horri heldu behar diogula, beste hainbatekin egiten dugun bezala. Ez dugu haurrek 12 urte bete arte itxaron behar, haurtzaroa eta aurrenerabearoa bizitzaren etapa goiztiarrak direnez, haietan behar-beharrezkoa delako balio horiekin harremanetan sartzeara, etorkizuneko elkarbizitza beste pertsonetikiko estimazioko eta errespetuzko jarrearen gainean

3 COGAM, Comisión Educación, Adolescencia y sexualidades minoritarias: voces de exclusión. Madrid, 2006. Comisión de Educación, Homofobia en el sistema educativo, Madrid, 2006.

4 Horren haritik, aipatzekoa da gauza bat dela aurkako sexuko kide izatearen sentimendua edukitzea eta beste generoari esleituriko rolekin bat egitea, eta beste bat sentimendu horri, pixkana-pixkana, izena ematea. Txiki-txikitatik sentimendu horren jabe diren transexual askok heldutasunera iritsi behar izan dute gertatzen zitzaizen hori izendatzen asmatzeko.

5 III. elkarriketa

6 UHIN-BARE izeneko programak zeharka heltzen dio hezkuntza afektibo-sexualari institutueta. Programa horren unitate didaktiko batek homosexualitatearekin eta lesbianismoarekin zerikusia duten edukiak lantzen ditu, transexualitatea alde batera utzita. «Herritartasunerako eta giza eskubideetarako hezkuntza» irakasgaiak aniztasun afektibo-sexualaren eta familiarren edukiei heltzen die, eta irailean jarriko da abian, DBHko 2.ean.

eraiki dadin, pertsona horien orientazio sexuala edozein izanik ere. Lehen hezkuntzako irakasle bat honela mintzo da:

«Zorritzarrez ezer ere ez dago, ezer ere ez... genero-indarkeriaren inguruan badago zerbait, baina gai honen inguruan inork ere ez du ezer ateratzen, eta, jakina, gaia ikastetxean aurkezten ez badugu, orduan Gorbeaz, ikurriñaz eta bisigodoez hitz egiten jarraituko dugu, egin dezagun behingoz zerbait praktikoagoa, asperralditik ateratzeko...»⁷

Espainiako Estatuan homosexualitatea Bigarren Hezkuntzan zertan den jakiteko egin den azterlan bakarraren arabera⁸ homofobia nagusi da Espainiako Hezkuntza Sistemari, «eta jazarpenen, irainen edo eraso fisikoen bitartez adierazten da sarri; normalean, ordea, ezkutuago ageri da, zehaztu gabeko aurreiritziaren edo estereotipo desitxuratzaileren antzera; adierazteko eta izateko askatasunaren, eta beldurrik eta herusturarik gabe bizitzeko —ezkutatu beharrik gabe bizitzeko— askatasunaren kontrol ikusezinaren itxura hartuz.» Azterlanak aditzera ematen duenez, ikasleen % 74,5ek institutuan gay eta lesbianak okerrago tratatzen dituztela uste du. Elkarrizketaturiko emakumezko irakasle batek honako iruzkin hau egin digu errealitate hori lehen hezkuntzan zertan den argitzeko:

«...egia da helduek pentsamolde irekia erakusten dutela gai horiek lantzerakoan... praktikan, ordea, beste era batean jarduten dute... mutiko batengan nabardura afeminatu bat nabari dutenean baztertu egiten dute... oso pentsamolde irekia dute, bai, baina pertsona jakin bat onartu behar dutenean...»⁹

Emakumezko beste irakasle batek ildo beretik hitz egin du:

«Urteen poderioz zera ikusi dut, adin horietako neska-mutilak oraindik ere gaiztotu gabe daudela, eta homosexualitatea lasaitasunez onartzen dutela, eta jakina, aberraziotzat jotzen dutela homosexualitatea debekatzea, edo homosexualak jazartzea edo gutxiestea... oso naturalizat jotzen dute bi pertsona elkarrekin maitemintzea, sexu berekoak izan edo ez, ez diote inolako trabarik jartzen. Hori bai, neska batek manera maskulinoak eta mutiko batek manera femeninoak baditu, orduan bai, haiekin sartzen dira. Kontraesana da, baina hala da, eta estereotipoek indarrean jarraitzen dutelako gertatzen dela uste dut. Irainak betikoak dira: marikoia, lesbiana eta abar. Iraindu, iraindu egiten dute, nahiz eta gero, arrazionalizatu ondoren, orientazio sexual guztiak onartu egiten dituzten»¹⁰

Horren aurrean, argi dago aniztasuna landu beharra dagoela, haurrek lehen adin-urteetatik bizi, ulertu eta eraiki dezaten. Afektibitatea, sexualitatea eta genero-aniztasuna bizitzeko gizon eta emakumeek dituzten errealitate eta aukera guztien berri izan behar dute haurrek, etorkizunean heterosexualitateaz bestelako aukerak bitxitzat eta gatazkatsutzat har ez ditzaten, haiek edo inguruan dituztenek beren burua gaytzat, lesbianatzat eta transexualtzat badute.

Bestetik, gaur egun hainbat haur familia homosexual eta/edo transexual baten eremuan hezi eta hazi egiten dituzte. Bi ama edo bi aita edukitzea; aita edo ama transexual bat edukitzea; banantze-prozesua bizitzea, aita gay delako edo ama lesbiana delako; horregatik beste familia mota batera igarotzea; errealitate horiek guztiak gero eta nabariagoak dira Euskadin.

«Garrantzizkoena familia-aniztasuna dela iruditzen zait, kalean ikusten duzulako eta gainera ikasgelan oso gutxi direlako tradizionalen antzera irauten duten familiak, hainbat familia banandu egiten dira, eta haurrak amarekin (edo aitarekin) bizi dira; amona, aitona eta beste zenbait figura ere ageri ohi dira. Orain artean ez dut bikote homosexualik, gay edo lesbianarik, ezagutu, baina inoiz halakorik izan dela susmatu dut, ama beti neska-lagun batekin zetorrelako; gainera, homosexualitatearen gaia nonahi ageri da gaur egun, telebistako saioetan, albistegietan eta abar, askoz ere nabariagoa da. Horri esker gaur egun hainbat lesbiana- eta gay-bikote ezagutzen ditugu, eta badakigu haurrak dituztela, eta une batetik bestera haur horiek gurera ekarriko dituztela, ikastolara, nik dakidanez behintzat, oraindik ere halakorik iritsi ez bada ere. Hori haurrekin landu

7 III. Elkarrizketa

8 COGAM, Comisión de Educación, Homofobia en el sistema educativo, Madril, 2006. Honako honetan aurki daiteke: www.felgt.org/temas/educacion/i/4066/84/homofobia-en-el-sistema-educativo

9 V. elkarrizketa

10 II. elkarrizketa

behar da, eta gauza normala dela eta kalean dagoela jakinarazi behar zaie; hortaz, garrantzizkoa iruditzen zait homosexualitatearen gaia haurrekin lantzea, normaltasunez hel diezaieten, aniztasunaren barruan»¹¹

Badira haur asko etxe barruan oso ondo daramatenak familia ez-tradizional bateko kide izatea. Kalera irten behar dutenean, orde, isildu egiten dute, eta ez bizi dutenarekin lotsatzen direlako, gai horren inguruan hitz egiteko aukerarik ikusten ez dutelako baizik. Beren bizipenak normaltasunez onartzerakoan, garrantzi handikoa da bide berri bat urratzea, ikasgeletan eta beste eremu batzuetan haur horiek beste haur batzuekin beren sentimendu pertsonalak konpartitzeko aukera izan dezaten. Horrek are beharrezkoagoa egingo du ikastetxeetan aniztasunari heltzea.

Sexu-aniztasunean oinarritutako hezkuntza jasotzearen ondorioak nabariak dira, elkarriketaturiko irakasleek aditzera ematen dutenez:

«Arartekoren bulegotik inkesta batzuk egitera etorri ziren. Niri ikasgelan egitea tokatu zitzaidan, eta haurrei honako galdera hauek egin zizkieten, besteak beste: «familia al da gizon batek eta emakume batek osaturikoa?, eta bi emakume eta haur batek osaturikoa?, eta bi gizon eta zenbait haurrek osaturikoa?»; haurrek baiezkoa erantzun zieten galdera guztiei. Galdera horiengatik ez dira harritzen. Arartekotik etorri zen emakumezko langileak irakaslea edo mahaikidea gay izatea axola ote litzaiekeen galdetu zien, eta haiek beti ezetz... egin dugun urriarekin ere, gaiak jabetzea lortu dugu. Behin batean atentzioa eman zidan zerbait gertatu zen: A ereduko ikasgelan neska gor bat dago. Ni gauza batzuk jasotzera hurbildu nintzen, haurrek ipuina irakurtzen amaitu eta berehala, eta neska hori beste neska batzuekin, neska boliviarr batzuekin, zegoen. Neskek ez zutela ulertzen zioten. Neska gorrak „lesbianak dira« esaten zien, eta besteek «ez dugu ulertzen» erantzuten; neska gorrak arrazoia azaldu zien: «elkarrekin daude eta elkar maite dute»

«Guk nahiago dugu egiten duguna nabaria dela pentsatzea. Kontua da gaia behin eta berriz landu beharra ... iraganaren arrastoak indar handia du, baina hura aldatzeko egiten dugun ahalegin oro, txikia izanagatik ere, betiere nabaritutako dela uste dugu. Bai, irakasleek asko eragiten dute ikasleengan, guk uste baino gehiago»

Horren haritik, nazioarteko hainbat azterlanek frogatu dute LGTB¹⁴ errealitatea ezagutzeak kolektibo horiekiko fobiak mugatu egiten dituela; gure hezkuntza-sisteman, orde, isiltasunaren legea da nagusi. Transexualak, gayak eta lesbianak ikusezintasunera kondenatuta daude, eta horixe da «mendetasuna legeztatzeak eta desberdintasunak iraunarazteko tresna nagusietako bat. Ikusten eta ezagutzen ez denaren aurka borrokatzerik ez dagoelako»¹⁵.

Alvaro Marchesik dioenarekin bat etorritik,¹⁶ eskola-erakundearen lehentasunezko helburuak ikasleei elkarbizitzaren irakastea eta izaten irakastea beharko lirateke. Alabaina, gaur egun ezartzen ari direnak baino askoz ere ahalegin eta baliabide gehiago beharko dira horretarako.

Ikasgelan sexu-aniztasunari heltzeko zailtasunak

Aniztasun afektibo-sexualarekin eta familiarrarekin zerikusia duten edukiak ez dira lantzen ikastetxeetan, eta horrek zerbait esan nahi du. Gai horri buruzko hezkuntzarik eza euskal hezkuntza-sistemak gaur egun duen gabezia esanguratsuenetako bat da, argi geratu denez hezkuntza hori bultzatzea premiazkoa bada ere eta Eusko Jaurlaritzak «(pertsonen, aukeren, kulturen...) aniztasuna eskola-curriculumera biltzea helburu nagusietako bat dela ezarri duen arren»¹⁷.

11 II. elkarriketa

12 III. elkarriketa

13 VI. elkarriketa

14 Lesbiana, gay, transexual y bisexual

15 COGAM, Homofobia en el sistema educativo, Madril, 2006, 5. orria

16 MARCHESI Alvaro: Herramientas para combatir el bullying homofóbico (hitzaurrea), AAVV, Ed. Talasa, Madril, 2007, 9. orr.

17 Eusko Jaurlaritzak - Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, Hezkuntza berriztatzearen lehentasun-ildoak 2007-2010, Vitoria-Gasteiz, 2008, 13. orr.

Ikasgelan sexu-aniztasuna lantzerakoan sor daitezkeen oztopo eta zailtasunak aztertzea da kapitulu honen helburua, irakasleei eginiko elkarrizketetatik abiatuta.

a) Materialik eza

Ikasgelan materialik eza nagusi izan da betidanik, aniztasun afektibo-sexualarekin zerikusia duten edukiak lantzerakoan, eta «Sexu-aniztasuna eta familia berriak» gizarte-hezkuntzako proiektuaren helburu nagusietako bat urritasun hori arintzea zen.

Gainera, lehen hezkuntzako emakumezko irakasle batek adierazi duen bezala, eduki horiek lantzeko materialik ez izatea bereziki kezagarria da, hurrek gizartean jasotzen dituzten mezuak kontraesankorrak izan daitezkeelako, eta horrela etxean zein ikastetxean nekez aurkituko dutelako aniztasunari buruzko erreferentzia positiborik:

«Oso gutxi dira literaturan gai horiek jorratu dituzten testuak, eta gizartea izugarri hipokrita da zentzu horretan, hurrek entzun dute gayak badaudela eta familia mota desberdinak daudela, baina gertutik tokatzen zaienean konturatzen dira etxean eta murgilduta dauden gizarte-ingurunean mezu kontraesankorrak jasotzen dituztela, oso zaila da etxean bi mutilek edo bi neskak elkar maite dutela botatzea mespretxuzko erantzunik entzun gabe, eta marikoia edo lesbiana hitzak erabili ohi dituzte norbait iraintzeko. Presio soziala eta komertziala indartsuagoa da oraindik ere.»¹⁸

Emakumezko irakasle horrek asmatu egin du hurrek egoera horretan nolabaiteko kontraesana suma dezaketela adierazterakoan: mass medietan gayak, lesbianak, transexualak eta familia desberdinak badaudela entzuten dute une oro; eskolak, ordea, ez die material egokirik eskaintzen, gizartean gero eta nabariagoa den errealitate batekin bat etorriko liratekeen diskurtso eta irudiak aurkitu ahal izateko. Emakumezko irakasle batzuek, ikastetxean LGTB pertsonaiadun ipuinak ba ote zituzten galdetuta, honako erantzun hau eman zuten:

«...Ikastetxean ez dugu bat ere, eta liburutegian eduki beharko genituzke, ezbairik gabe. Ondo legoke, aita, ama, amona eta abar baino ageri ez diren ipuinak bakarrik dauzkagulako. Interesgarria litzateke, halaber, ipuin horietako protagonistak emakumeak izatea, horrek generoa lantzea ahalbidetuko ligukeelako, normalean protagonistak gizonak izaten direla aintzat hartuta. «Iris eta Lila» ipuinean bi pertsonaiak elkarrekin maitemintzen dira, baina hori ez ezik, bada beste gauza bat nabarmendu beharrekoa, ipuin gehienetan ez bezala, neskak direla protagonistak, ezpatariak... gizona, maskulinoa, izan ohi da ausardia erakutsi behar duena, eta ipuin honetan neskak dira protagonistak, nortasun eta adimen handiko neskak...»¹⁹

Emakumezko irakasle horiek agerian uzten dute ikastetxeetan sarri erabilitako materialak oso konbentzionalak eta heterosexistak direla, eta horrek desberdintasunean eta diskriminazioan oinarritutako hezkuntza areagotu egiten duela. Horren haritik, *Iris eta Lila*²⁰ da gizon eta emakumeen gizarte- eta sexu-rolen dagokien bestelako ikuspegi bat ekarri dien ipuin bakarra, eta, ildo horretatik, jarrera tradizionalen aldean ipuin horrek zenbaterainoko haustura dakarren azpimarratzen dute, eta balio handia ematen diote, rol ez-tradizionalak jokatzen dituzten emakumezko figurak biltzen dituelako, eta hori haurrentzat garrantzizkoa izan daitekeela uste dutelako. Bestetik, deigarria da ikastetxean haurrentzako ipuin alternatibo gehiagoren berri jaso ez izana, LGTB protagonistak eta emakume protagonistak dituzten ipuin ugari sortu direlako azken urteetan.²¹

b) Kontzientziarik eza irakasleen artean, sexu-aniztasunari heltzerakoan

Irakasleek gai horiek landu beharraz kontzientzia hartu ez izana oztopo handia da, kontzientziazioa funtsezko abiapuntua litzatekeelako, ikasgelan gai horiek lantzeko modua bilatu aurretik. Elkarrizketaturiko emakumezko irakasleak honako egoera honen berri eman du:

«Ikastolan hierarkia asko daude, materiala gainetik irakurri nuenean lankideei adierazi nien materiala eskura genuela eta ikasgelan lantzea interesgarria litzatekeela, baina

18 I. elkarrizketa

19 V. elkarrizketa

20 Ipuin hori liburu honen II. Zatian kontsulta daiteke

21 LGTB gaiei buruzko ipuinak ikusteko, ALDARTEn web-orrira edo liburutegi espezializatuetara jo dezakezu

denak ez zetozen bat horrekin, eta hainbatek, gehienek, gai horiek aurrerago landu behar direla uste dute, eta ikuspegi horretatik abiatuta, materiala ez erabiltzeko erabakia hartu dute.»²²

Ikastola horretako irakasle gehienek ez dute aniztasun afektibo-sexuala lantzen haurtzaroan ez dela landu behar uste dutelako. Zergatik ez da garrantzizkotzat jotzen adin horietan sexu-aniztasuna hizpide hartzea? Haurtzaroan sexualitatea neutrala delako uste okerra zabaldu ohi delako. Uste hori, funtsean, arriskutsua da, heterosexualitatean oinarritutako eskola bat sortzea ahalbidetzen duelako (horretaz konturatu gabe eta gehiegi arrazionalizatu gabe bada ere), heterosexualitatearen presuntzio unibertuala pertsona guztiei aplikatzen zaielako, edozein adinetakoak izanik ere, eta presuntzio hori hezkuntza sisteman inork ere deuseztatu nahi ez duen ezkutuko curriculum batera biltzen delako. Litekeena da neskatala edo mutikoa lesbiana edo homosexuala ez izatea, baina, hori zalantzan jarri ezean, eskolak guztiak ere heterosexualak direla hartuko du aintzat, eta halakotzat joko ditu.

Horrelako edukiak lantzeari garrantzia ez ematea dakarren kontzientzia horren atzean dauden arrazoiak sakonagotik aztertu beharko lirateke. Emakumezko irakasle bat nolabaiteko azalpena ematen ahalegindu da, baina horrek ere ez du betetzen, besteak beste, logikoa denez, gai bat balioesten bada azkenerako gai horri heltzeko modua aurkituko delako, asko edo gutxi kostatu:

«Uste dut ez dakitela gaiari nola heldu behar zaion, eta ez dutela ikusten litekeena dela haur batek homosexualitatea anormaltzat hartzea; kasu horretan, nola biziko luke gai hori nerabezaroan?, ez dute beharrezko ikusten homosexualitatearekin zerikusia duten gaiak lantzea, gehienak heterosexualak direnez gizarte heterosexual batean homosexuala edo lesbiana izatea zer den ez dakitelako, ... eta, beharrezko ikusten ez dutenez, ez dute uste ikasleen garapen pertsonalari begira garrantzizkoa izan daitekeenik; hortaz, ez dute ematen, eta kito.»²³

Eduki horiek esanbidez aztertzen ez direnez, zenbait gauza ahazten dira: batetik, orientazioa, homosexuala edo heterosexuala, adin horietan nabari daitekeela, sentimenduan zein jokabideetan, eta zenbait haurrek dagoeneko lesgay-egoerak ezagutu dituztela, familian eta/edo gertuko ingurunean. Gainerakoek bezala, haur horiek beren garapen afektibo-sexualean beharrezko arreta jasotzea merezi dute.

Bestetik, gai horiek alde batera uzten baditugu, ikastetxeko curriculumaren barnean lantzeko aukerak gal ditzakegu, emakumezko irakasle batek adierazi digunez:

«Ikastetxe honetan beste era batera lan egiten da, hizkuntzetan zenbait gunetan banatzen dira eta idazketa da horietako bat, hiruhileko bakoitzean bi idazketa egin behar dituzte, bi gairen inguruan, irakasleek jartzen dituzte gaiak, eta beti gai berberak dira, bosgarrenean eta seigarrenean kutsadura lantzen da... Beste edozein gai jorra lezake, homosexualitatea, esaterako, baina halakorik ez zaie bururatzen... zuk garrantzia eman diezaiokezu, ondo jorra dezakezu, baina irakasleek oro har behar bezala balioesten ez badute...»²⁴

BERDINDUren arduradunak, irakasleen artean kontzientziaziorik eza sumatzean, kontuan hartu beharreko aholku batzuk eman ditu sentsibilizazioari edo prestakuntzari begira:

«Homosexualitatearen eta lesbianismoaren arazoa bere ikusezintasunean datza, hau da, irakaslea, oro har, ez da gauza izaten bere neska-mutilen artean bi edo hiru gay, lesbiana edo trans izango direla ohartzeko. Ez dira ohartzen, eta horregatik ez dira jabetzen material horiek ikasgelan lantzearen garrantziaz. Horrenbestez, irakasleak sentsibilizatu edo prestatu beharko lirateke (borondatezkoa izan liteke), gai horiek ikasgelara nola bil litezkeen ikusteko. Irakasleen prestakuntzan gai horiei buruzko edukiak bildu beharko lirateke; ikasgelan gai horiek nola landu ere irakatsi beharko litzaieke, eta irakasleen

22 II. elkarrizketa

23 Ibidem

24 VI. elkarrizketa

prestakuntzara tresna gisa biltzeko erraztasunak eman. Etengabeko prestakuntza horrek baliagarri beharko luke irakasleentzat.»²⁵

c) «Arazoa» iristerakoan eman beharreko erantzuna emango zaiola pentsatzea

Ikastetxeetan egin zen galdeketak jarrera horixe uzten zuen agerian, aniztasun afektibo-sexualarekin zerikusia duten gaiei heldu beharreko une egokiari dagokionez (galdeketaren emaitzak dokumentu honen beste atal batean bildu dira). Arazoa iritsi artean gaia ez dela zertan ukitu pentsatzea bat dator alde aurretik adierazitako ikuspegiarekin, eta oso ikuspegi berezi bat adierazten du aniztasunari heltzerakoan: aniztasuna arazoa da, ohiz kanpoko arazoa, noizbehinka baino ez baita gertatzen. Irakasle bat honela mintzo da horri dagokionez:

«Ez da ezer ere egiten, esaterako, etorkinen gaia oso polita da niretzat, eta nik bakarrik lantzen nuen, emakumezko beste tutore batekin. A ereduko arazoa zenez, orde, haiei bost, ez zutela zertan landu beharrik uste baitzuten, baina arazoa ikasgela guztiena da, ikasgela guztietan pertsona desberdinak daudelako»²⁶

«Ikasgelan ez dugu arazo hori» pentsatzea ohikoa da ikastetxeetan, emakumezko irakasle batek adierazi duen bezala:

«Hirugarren zikloan gai batzuk sortu dira, sexualitatea lantzen dute baina ingurunea —gizonaren eta emakumearen gorputza— ezagutzera mugatuz, eta tutoretza-orduetan, gaia ateratzen bada, gehiago lantzen da, baina ...gurean zera gertatu zen, ikasturte-hasieran, maritxu-manerak dauzkan mutiko bat korrika joan zen zuzendaritzara marikoia deitu ziotela esateko, eta emakumezko irakasle bat kopiak ateratzen ari zen une hartan, eta mutikoak gay deitu ziotela adierazi zion, eta irakasleka, eta zer? ez da ezer, eta denborarekin...hautsak harrotu zituen gai horrek... eta horregatik landu dute pixka bat...eta emakumezko beste irakasle batzuek zera esan zidaten, gaia ikasgelan ateratzen bada, orduan bai, landu egiten dutela; normalean ez dute lantzen, orde, eta alde batera uzten dute...»²⁷

Azken batean, gatazkaren bat gertatzen denean heltzen zaio „arazoari«, gatazka gainean dagoenean alegia; ordura artean, ikastetxeak bere ohiko bide «normala» jarraitzen du:

«Bai, eta bestetik, esaterako, lehen hezkuntzako lehen ikasturtean familiak lantzen dira, ikastetxe honetan ez da liburuekin lantzen, hainbat liburutako fitxekin baizik, familia lantzeko norberaren familiatik abiatzen da, eta, jakina, ikasgelan homo-familia bat badago, orduan bai, familia mota hori lantzen da, baina bestela ez, ama ezkongabea lantzen da, dibortziatua lantzen da, baina betiere ikasgelan egoera horretan dauden haurrak baldin badaude. Aurten bat ere ez zegoen, eta horrenbestez ez ziren landu, eta emakumezko irakasle bati esan nion metodo horrekin ezinezkoa zela dauden familia mota guztiak aztertzea, eta zera erantzun zidan «bai, baina...»²⁸

Aniztasunari heltzerakoan «ateratzen ez bada, ez da lantzen» ikuspegi horri jarraitzen badiogu, orde, ezinezkoa izango da aniztasuna adieraztea ahalbidetuko duten eremu berriak irekitzea. Gainera, kontuan hartzekoa da aniztasun hori egon badagoela, hura isiltzeko hamaika ahalegin egin arren, eta ez ikusiarena egiteagatik soilik ez dela desagertzen. ALDARTeren proiektu-arduraduna ildo horretatik mintzo da:

«Gaia ez dutela lantzen horrelako familiak ez dituztelako esateak zera esan nahi du, praktikan familia horiei ez zaiela inolako aukerarik ematen argitasunez eta lasaitasunez hitz egiteko. Gainera, familia horiek aditzera ematen digutenez, ikastetxeek, izena emateko fitxetan, aita/ama erabiltzen dute oraindik ere. Jakina, datuak horrela biltzen direla ikusirik, norbaitek bi ama badauzka ez dizu horren berri emango.»²⁹

Une honetan, lesgay-gurasoek beren egoera adierazi eta azaltzen dute ikastetxean, baina informazio hori noranzko bakarrean doa, ama eta aitengandik ikastetxera alegia, eta ikastetxeak ez du neurri berean erantzuten, aldaketa gutxi batzuk baino ez baititu egiten.

25 VII. elkarrizketa

26 III. elkarrizketa

27 IV. elkarrizketa

28 Ibidem

29 VIII. elkarrizketa

Aniztasunari jarraibide horiei jarraiki helderakoan bada beste gauza bat azpimarratzea merezi duena: beren harremanen esparruan ikasleen artean gerta daitezkeen jazarpenak prebenitzeko inolako jardunik ez izatea. «Arazoa» gerta dadin itxaroteak zera esan nahi du, ikastetxeak prebentzio-politika egokirik ez duela seguru asko gertatuko diren jazarpenen edo bullying kasuen aurka. «Arazoaren» zain egotea oso berandu izan daiteke haren homosexualitatearengatik, lesbianismoarengatik edo transexualitatearengatik jazarpena jasaten duen haurrarentzat.

d) *Interesik eta motibaziorik eza*

Irakasleek motibaziorik eta interesik ez izatea ere oztopo da ikastetxeetan aniztasunaren gaiari heltzeko. Horren haritik, elkarriketaturiko gizonezko irakasle batek ez du ulertzen «Sexu-aniztasuna eta familia berriak» proiektuaren materialak zergatik ez diren erabiltzen. Haren ustez, irakasleei dena emanda ematen zaie material horretan, eta horrenbestez ez dute ahalegin handirik egin behar zerbait berri sortzeko:

«Interesik eza dago oro har, eta ez soilik gai horretan, gai guztietan baizik. Agenda 21ean gaude, eta ez da inolako interesik ikusten. Jendeak dena eginda jaso nahi du, zuk sortu behar baduzu, ordea, arazoak sortzen dira, baina nik hori ere ez dut ulertzen, Hurbileko Erresuma, esaterako, ez delako landu behar, eginda datorrelako, fitxak atera beharko lirateke bakarrik, eta haurrei eman; jarraian, haiekin irakurri, kartetan jolastu, eta...»³⁰

Bizi garen egoeran, curriculumak ez ditu irakasleak behartzen gai jakin horiek lantzerantz, eta horrenbestez motibazioa behar-beharrezkoa da aniztasun afektibo-sexualarekin eta familiarekin zerikusia duten edukiak ikasgelan planteatzeko. Interesik eta motibaziorik ezaren ondorioz, irakasleek ez dute ahalegin askorik egiten, ikasleentzat, beharrezkoak ez ezik, etorkizun hurbilean funtsezkoak ere izan litezkeen edukiak ekartzeko:

Nork irakatsiko die hori?, nire ustez ez da lantzen, ezta materialak eginda emanik ere... ALDARTEn proiektuko materialak aholkularitzan zintzilik egon dira urte osoan, inork erabili gabe,...kanpotik kolektibo bat datorrela eta haiek egin nahi dutela, bale...haiek egin dezatela,...bestela...burutik ere ez zaie pasatzen ardura hori beren gain hartzea.³¹

Dela kontzientziarik, interesik edo motibaziorik ezarengatik dela arazoa iritsi bitartean arazo hori ez dela zertan ukitu pentsatzeagatik aniztasuna afektibo-sexualarekin eta familiarrekin zerikusia duten edukiak eskaintzen ez badira, eskolak gizartean gertatzen dena ez duela islatzen ondorioztatu beharko dugu, azken urteetan gizartean LGTB pertsonen eskubideei dagokienez aurrerapen handiak gertatu direla eta pertsonak beren homosexualitateaz, lesbianismoaz edo transexualitateaz geroz eta gazteago jabetzen direla ahaztuta. Eskolan gai horiek guztiak isiltzen badira, horrek esan nahiko du eskola gizartetik aparte bizi dela, eta gizartean gertatzen dena ez duela aintzat hartzen bere hezkuntza-zeregina aurrera eramateko.

e) *Irakasle guztien inplikaziorik eza*

Elkarriketaturiko emakumezko irakasleetako batek adierazi digunez, aniztasun afektibo-sexualari eta familiarri buruzko edukiak besteenganako sentimenduen garapena lantzen duten curriculum-helburuen artean bil daitezke. Alabaina, nork irakatsiko die hori, edo zer irakasle animatuko da gai horiek ematera? Izan ere, behin helburuak zehaztuta, gainerakoa irakaslearen borondatearen esku uzten da, hau da, irakasleak askatasun osoa du gai horiek lantzeko, eta irakasleak erabakitzen du gai horiek eman edo ez. Hortaz, ikastetxeetan gehien kontzientziatu direnek bakarrik landuko dituzte gai horiek ikasleekin, eta normalean gutxiengoa dira, honako iruzkin hauetan jaso denez:

«ikastetxean berrogeita hamarretik gora gaude, lehen hezkuntzan D ereduko bi linea oso daude, hau da, hamabi ikasgela, gehi A ereduko bostak, 17 ikasgela guztira, baina ez dago proiekturik edo beste ezer garatzeko gogo askorik, eta emakumezko beste irakasle bat eta biok bakarrik gaude proiektu honetan lanean.»³²

30 III. elkarriketa

31 III. elkarriketa

32 Ibidem

Gainera, emakumezko irakasle honek azpimarratu duen bezala, ezinezkoa da irakasleak gai jakin horiek ematera behartzea:

«Sexualitatearen gaia ugalketaren gaia jorratuz lantzen da, besterik gabe, eta horretan dihardugun sei irakasleetatik bik baino ez ditugu landuko gai horiek materiala erabiliz, beste lauek ezezko erantzuna eman baitute; argi dago, beraz, ez dagoela inor behartzerik, hau hautazkoa da. Hau da, liburuan, programazioan, ugalketa baino ez da aztertzen, eta guk pixka bat zabaltzen dugu sexualitatea ere emanez, eskarien arabera, eta gero bestelako familia motak sartu beharraz eta homosexualitatea ere sartu beharraz jarduten dugu, baina hainbatek ez du bere burua seguru ikusten homosexualitateari buruz hitz egitean, aparte uztea nahiago du eta hortaz landu gabe uzten du, aukera pertsonala delako azken finean»³³

LGTB kolektiboetatik azken urte hauetan behin eta berriz azpimarratu denez, egoera eredugarria ez bada ere, gero eta gehiago dira aniztasuna beren materialetara eta curriculum-edukietara biltzearen alde agertzen ari diren irakasleak.

f) Gehiegizko lanak itota

Hezkuntza-sistema pixka bat ezagutzen duen edonork badaki irakasleak itota egon ohi direla jardueraren beraren eraginez. Gizartean konpondu beharreko arazo guztiak hezkuntza-sistemaren bizkar uzten dira, hezitzaileek haurrekin beharrezko balio eta jarrerak landuko dituztelako itxaropenarekin, etorkizunean arazo horiek ezabatu edo arin daitezen. Honako hauek argi gehiago ematen digute arazo horren inguruan:

«Beno... askotan ezin duzu iristen zaizun material oro landu, baina honako hau interesgarria iruditu zitzaigun... eta egia esan denetik iristen zaigu materiala, erruz iritsi ere, eta are gehiago gai jakin batzuen inguruan... gainera, ikasturte-amaieran material ugari jasotzen ditugu, eta ezinezkoa da orori heltzea....kalean konpondu beharreko zerbait dagoenean eskolara bidaltzen da zuzenean, eta konpondu eta landu beharrekoak ugariak dira benetan...»³⁴

«Gai ezaguna da, dokumentu horiek iritsi ziren aurreneko aldian zikloetan banatu zirelako; gogoan dudanez, nire zikloko koordinatzaileak «material hau ekarri dizuet, eman dezazuen» esan zuen. Jendea kexatu egin zen: «gauza gehiago?». Izan ere, aldi berean, Medicus Mundiren proiektu bat eta beste zenbait gauza aurkeztu zizkiguten».³⁵

Ikastetxeetara material ugari iristen dira, eta horri denborarik eza erantsi behar zaio. Bi faktore horiek nabarmen oztopatzen dute ikasgeletan sexu-aniztasunari heltzearen helburua. Nolanahi ere, ALDARTEren arduradunak adierazi duenez:

«Ikastetxeen erantzun txundigarrienetako bat zera da, materiala ez dela erabiltzen irakasleak nekatuta daudelako, materialek gainezka egiten dietelako, eta horrek zer pentsatua ematen dizu, gai horri buruz seguru asko ez dutelako material askorik jasotzen...»³⁶

ALDARTEn ondo asko dakigu Euskal Hezkuntza Sistemari ez dela sexu-aniztasunari heltzeko material askorik jasotzen³⁷. Horregatik da harritzekoa material horien aurrean ere hainbat ikastetxetan «Uf, material piloa jasotzen dugu eta!» erantzuna jasotzea, eta irakasle gutxi batzuk baino ez konturatzea materialak, edukiarengatik, bakanak eta bereziak direla. Logikaren arabera, arreta bereziarekin jaso beharko zituzketen.

Irakasleek lanpetuta jarduten badute, material asko jasotzen badute eta denborarik ez badute, garrantzitsuentzat jotzen dituzten gaiak bakarrik lantzen dituzte, eta horiek, sarritan, zerikusi handiagoa izaten dute eduki teknikoekin jokabideekin baino. Emakumezko irakasle batek honako hau adierazi du horren inguruan:

33 II. elkarrizketa

34 V. elkarrizketa

35 III. elkarrizketa

36 VIII. elkarrizketa

37 Azken lau urteetan, Euskadiko lehen hezkuntzako ikastetxeetan bi material mota jaso dituzte aniztasun afektibo-sexualari eta familiarrari buruz: ALDARTEk landuriko “Sexu-aniztasuna eta familia berriak” proiektua, eta Gehituk landuriko bi material (kartak eta DVDa).

«Askotan, harreman handia dudan irakasleekin hitz egin dut, eta material hau zergatik ez duten lantzen galdetu diet, nahiz eta ikasleek galderarik egin ez edo horri buruz hitz egiteko gogorik ez eduki, hala eta guztiz ere interesgarria litzatekeela ikasgelan mahaigaineratzea, «bai baina...» erantzuten didate, hura lantzeko astirik ez dutela eta kenketak, batuketak eta abar ikastea garrantzitsuagoa dela, gauza batzuei lehentasuna ematen diete beste batzuen aurrean»³⁸

Elkarrizketetako batean, gizonetako irakasle batek adierazi zuen ikastetxe bakoitzean pedagogia-kabinete bat sortu beharko litzatekeela, iristen diren materialak galbahetik pasatzeko, material horien azterketa bere gain hartzeko eta jarraibide zehatz batzuk emateko, aniztasun afektibo-sexualari eta genero-aniztasunari buruzko proiektu espezifikoak lantzerakoan.

g) Gai horiei heltzen badiezu jendeak gay edo lesbiana zarela pentsatuko duela pentsatzea:

Oraindik ere indarrean dagoen gay, lesbiana eta transexualenganako mendetako aurreiritziaren ondorioz, gizartea sinetsita dago borroka espezifikoak, aniztasunarekiko gero eta errespetagarriagoak izango diren eremuak lortzeko borroka esaterako, diskriminazioen eraginak zuzenean jasotzen dituzten kolektiboen ardura dela, gainerako guztiek zerikusirik ez balute bezala. Hala, aurreiritziaren ondorioz, heterosexualek pentsatu ohi dute, lesbiana, transexual, eta gayekin zerikusia duten gaiak hizpide hartzen badute, talde horietako kideetat jo eta praktika horiekin lotuko dituztela. Gizonezko irakasle batek ezin hobeto azaldu du hori:

«Bada jendea uste duena ikasgelan homosexualitatea lantzen baduzu homosexuala zarela dela. Oraindik ere badira irakasleak homosexualitatearekin lotuko dituzten edo besteek gay direla pentsatuko duten beldur direnak, baldin eta ikastetxean gai horiek lantzen badituzte»³⁹

Ageri-agerikoa da gai horien aurrean oraindik ere beldurra nagusi dela, areago oraindik lehen hezkuntzaren eremuan aurreiritzi jakin batzuk oso hedatuta daudela kontuan hartuta. Aurreiritzi horiek emozio-ezegonkortasunarekin lotzen dituzte lesgay-irakasleak, baita kargupean dituzten haurrak jazartzeko edo hurrez abusatzeko aukerarekin ere. Ideia horiek ondorio bat baino gehiago dute. Batetik, lesgay-irakasleak zokoratu egiten dituzte, ikastetxearen arabera lantokian ikusezin bihurtzeraino, eta, bestetik, ikasleek kanpoko erreferentzia-iturri garrantzitsuak galtzen du, itxuraz ikastetxean ez delako irakasle lesbiana edo irakasle gay gehiagorik izango.

«Bigarren hezkuntzan jardun dut, eta aniztasuna ez genuen lantzen, aparteko kontutzat jotzen baitzen. Niretzat, ordea, oker handia da homosexualitatea ez lantzea, baita lehen edo bigarren hezkuntzan gai hori guztiz baztertuta egotea eta homosexualitatea normaltzat ez jotzea ere. Alabaina, tutore bat homosexuala ez bada, ez du horrela ikusiko, eta zure burutazio bat baino ez dela pentsatuko du. Andereño batekin hizketan egon nintzen eta arrazoia ematen zidan, eta gaia beste era batera landu beharra zegoela konturatzen zen; hainbat lagun gay ditu gainera, eta horrenbestera ere ez zela esaten zidan... erreferenterik ez baduzu, ordea... Ni ez naiz erreferente izango, hemen ikastetxetan zenbait ikasleek barre ederrak egingo lituzketelako horren kontura; gainerako irakasleen erreakzioa, bost axola, baina ikasleena ez.»⁴⁰

Gauzak horrela, oso litekeena da gay eta lesbiana diren irakasleek aniztasunari heltzeari uko egitea, lehenik eta behin ez dutelako ikasleen aurrean agerian gelditu nahi izango, ezta horren inguruan iruzkinik entzun ere. Horren ondorioz, erreferentzia positiboen hutsunea areagotuko da, halakorik posible bada.

h) Homosexualitatea, lesbianismoa eta transexualismoa tabu dira oraindik ere

Aniztasun afektibo-sexualak eta familiarrak beldurrarazten dute oraindik ere, eta tabu izaten jarraitzen dute ikastetxeetan. Irakasle batek bere ikastetxean gertatu zen egoera baten berri eman digu:

38 IV. elkarrizketa

39 III. elkarrizketa

40 IV. elkarrizketa

«Gai horiek beldurra eragiten dute..., Islandiako musikal baten bideoa ikusi nuen,⁴¹ mutiko bat beste mutiko bat besarkatzen ari da, eta argi eta garbi ikusten da mutikoak, ez neskak, gustatzen zaizkiola, ... ikastetxean, berriz, haurrek hori ikus dezaketen edo ez eztabaidatu genuen... bideoan, 10-12 urteko haurrak ageri dira, eta mutilak elkarri musuka, eta jendeak zera esaten du, baina nola ikusiko dute hori?. Kontua da ez direla aztoratu behar bi mutikoek elkarri musu ematen diotelako, nork bere burua onartu behar duela, edonolakoa izanik ere, jakinarazten badiegu, orduan ez da ezer gertatuko... gurasoek horren aurrean zer esan dezaketen, horrek kezkatzen du bereziki, ... oraindik ez dugu bideoa ikasgelara eraman...»⁴²

Beldurrak izan ohi dira ikastetxeetan proiektu jakin batzuei ekiteko oztopo nagusiak, eta, oro har, gizartean oso eztabaidatuak diren eta sarri zalantzan jartzen diren gaietatik eratortzen dira. Hala gertatzen da sexualitatearekin oro har, eta homosexualitatearekin, lesbianismoarekin eta transexualitatearekin bereziki. Beldurrak izateak, ordea, ez du esan nahi beldur horiek atzeman eta landu ezin daitezkeenik. Emakumezko irakasle honek honako hau adierazi du horren haritik:

«Hasteko, norberaren beldur pertsonalak daude. Zer esan dezaket gai honen inguruan?, nola azalduko dut?, hori zen gure zailtasun nagusia. Gainera, jakina, irakasle bakoitzaren historia ere kontuan hartzekoa da, bakoitzak zer muga dauzkan gai horiei heldzerakoan, zer eskarmentu duen horren inguruan eta abar»⁴³

Nolanahi ere, litekeena da beldurra okerrean ez izatea hain korapilatsua den sexu-aniztasunaren gaiari heldzerakoan. Aniztasun hori txarra dela sinetsita sortzen eta hazten gara, eta egoera horretan normala da zalantzak, beldurrak, mugak edo gatazkak edukitzea haurrei sexu- eta familia-aniztasunari buruz hitz egiteko erabakia hartzen dugunean. Alabaina, beldur horiei guztiei aurre egin behar zaie, eta, geroago, konponbidea bilatu. Horixe da hainbat irakaslek sexu-aniztasunari buruzko edukiak ikasgeletan emateko aurkitu duten modu bakarra.

i) Ikastetxeen babes eskasa

Gizonezko irakasle batek bere kezka azaldu zuen honako honen inguruan:

«Zer gertatzen da? Proiektuetan dagoen jendea aintzat hartzen dute ikastetxe batzuetan; hemen, esaterako, euskararen normalkuntzan dihardutenek ordu libre asko dituzte (10 edo 12 ordu), ez dute kobratzen, baina eskolarik gabeko tarteak dituzte jarduerak prestatzeko. Guri, aldiz, 2.000 Euro eman dizkigute materiala erosteko, baina ez eskolarik gabeko ordu librerik. Agenda 21ekoek ere ordu libreak dituzte, proiektu ofizial guztiek bezala... gainerakoek, ezer ere ez... Gu oso animatuta gaude proiektu hau aurrera eramateko; ikastetxeak, ordea, babes urria ematen digu, hori da arazoa. Saio bat ere ez daukagu... hamaika ahalegin egin behar izan ditugu elkarlanean aritu eta baterako saio bat eduki ahal izateko, hamabostean behin 45 minutuko saio bat gutxienez ere, materialak prestatu eta horrelakoak egitearren...»⁴⁴

Zenbait proiektuk babes eskasa jasotzen dute ikastetxearen aldetik, eta horrek zuzenean eragiten du proiektu horiek abian jartzeko ardura duten irakasleengan. Irakasleen artean motibazio urria nabari da ikastetxean gai jakin batzuk landu eta emateko, eta horri erantsi behar zaizkio ikastetxearen inplikazio eskasetik eratorritako zailtasunak, sarritan ikastetxeak ez duelako irakasleak proiektu jakin batzuk egin ditzaten motibatzeke ekimena bere gain hartzen, eta proiektu horiek errazago egiteko bitartekoak ere ez dituelako abian jartzen. Horren haritik, kezkatzekoa da ofizialtzat jotako proiektuek —euskararen normalizazioari dagokiona edo Agenda 21, esaterako— bakarrik babesa jasotzea. Logikoa litzateke curriculum-helburuak lantzen eta betetzen dituzten proiektu guztiek erraztasun eta laguntza berberak jasotzea, behar bezala aplikatu ahal izateko.

41 Sigur Ross musika-taldearen bideoklipa da . ALDARTEN kontsulta daiteke

42 III. elkarrizketa

43 VI. elkarrizketa

44 III. elkarrizketa

j) Ez da sistematikoki lantzen

Sexu-aniztasunean oinarritutako hezkuntzari heltzen bazaio, behin-behinekoz eta/edo ohiz kanpo heltzen zaio, eta horrek nabarmen mugatzen du ekimena. Emakumezko irakasle batek honako hau adierazi digu horren inguruan:

«Hau da, gai horiek lantzea ez dagoela ikastetxe honen lan-planaren barnean... unean-unean lantzen da, bigarren zikloan badago mutiko bat betidanik maritxu-manerak eduki dituen eta asko zirikatu dutena; maritxu-manerak ez ezik, ikasteko zailtasunak ere baditu, eta egurra ematen diote hori dela-eta. Joan den urtean, hezkuntza bereziko irakasleak, aholkularia eta berritzeguneko koordinatzailea bildu ginen, ikasgelan aniztasuna lantzeko zer egin genezakeen ikusteko, baina ez zen ahalegin serioa izan... «zer egingo zenuke ikasgelan ikasleekin aniztasuna lantzeko, nola egingo zenuke»... horrelako galderen inguruan eztabaidan aritu ginen, baina azkenean ez zen ezer aterata... bilera batean aipatu zen, baina besterik ez.»⁴⁵

Beste irakasle batek honako ohar hau egin zuen:

«Hilabete batez lantzen da, eta kito... maizago landu behar da gaia, modu sistematikoagoan, ez aldi batez bakarrik, urruneko zerbait bezala, gero azterketa eta kito... gai horiek landu behar dira, bai, baina modu sistematikoagoan»⁴⁶

Gai horiek modu ez-sistematikoan lantzeak zenbait arazo dakartza berekin: batetik, gauzen mamira ez iristea, azalean geratuta; bestetik, homosexualak edo lesbianak direla ohartu direlako ikasleak murgilduta egon daitezkeen prozesu pertsonal korapilatsuekin ez konektatzea; eta, azkenik, sexu-aniztasuna ohiz kanpokotzat jotzea, hezkuntza-sistemak ematen dituen jakintzen gorputz orokorrera bildu gabe.

Subiratsek eta Brulletek adierazten dutenez:⁴⁷ «Ikaskuntza pertsonalaren beste hainbat esfera baztertu egiten dira, familiak bere gain hartuko dituen hipotesiaren azpian. Teorikoki bizitza pribatuari dagozkion eta betidanik femeninoak izan diren eremuak —etxeko lana ez ezik, emozio-hezkuntza eta hezkuntza moralaren zati handi bat ere biltzen dituzte— ezer gutxi heltzen zaie». Eskolak lesbianismoa eta homosexualitatea ukatzen ditu sarri, baita emakume eta gizonen heteronormatiboak bestelako sexualitatea edukitzeko aukera ere, eta horrenbestez neska-mutilek genero femeninoaren eta maskulinoaren egitura tradizionala osatzen duten eskaria eta espektatiba jakin batzuen eraginpean jarraitzen dute.

k) Sexualitatea lantzeko, genitalean eta ugalketan oinarritutako kontzeptua baliatzen da

«Seigarrenean sexualitatea landuko dute...baina animaliena... eta giza gorputza azaltzerakoan, orduan bai, sexu-organoak aipatuko dituzte, ugalketa, landareen ugalketa lehenbizi, animaliena jarraian, eta giza gorputzarena azkenean, eta kito... gaia ez da gehiago lantzen... ikasle batek zerbait galdetzen edo planteatzen ez badu behintzat, baina normalean inork ere ez du ezer galdetzen»⁴⁸

Emakumezko irakasleetako bat horrela mintzo da bere ikastetxean ematen den sexu-hezkuntza mota zehazterakoan. Ugalketaren eta genitalitatearen ideia esentzialistetan oinarritzen da sexu-hezkuntza hori, eta, horri jarraiki, haurra giza sexualitatearen oso kontzeptu mugatua eratzen hasiko da: sexualitate heterosexuala, eta ugalketara bideratua. Sexualitateari heltzeko era horrek, ordea, badu arazo bat, izugarri garrantzitsuak diren eta etorkizunean haurren pentsamoldean gehien eragingo duten beste zenbait gauzatarako oso tarte txikia uzten duelako. Hain zuzen ere, afektibitate- eta sexualitate-aniztasunaren eta ezartzen diren harremanek errespetuari eta onarpenari dagokienez duten kalitatearen kontzeptuak lehen eskolatzeko-urteetatik txertatu beharko lirake haurren pentsamoldean.

Gainera, sexu-hezkuntza emateko metodo hori honako ideia honetan oinarritzen da: «orientazio homosexuala eta lesbikoa nerabezaroa gainditu ondoren ezartzen da, eta

45 IV elkarrizketa

46 III. elkarrizketa

47 SUBIRATS, Marina; BRULLET, Cristina: «Rosa y azul: la transmisión de los géneros en la escuela mixta» en Mujer y Educación. Educar para la igualdad, educar en la diferencia, Ana González eta Carlos Lomas (koord.), Bartzelona, GRAÓ, 2001, 159. orr.

48 IV. elkarrizketa

ordura arteko guztia aldaketa da, eta sexu- eta emozio-alderdiei buruzko ikaskuntza»⁴⁹. Uste horrek bultzaturik, bigarren hezkuntzako zikloetara arte, homosexualitateari eta lesbianismoari buruzko edukiak ez dira eskola-curriculumera biltzen. Horren ondorioz, bigarren hezkuntzako zikloetara iritsi aurretik gay eta lesbianen joerak ageri dituzten neska-mutilek ez dute ikastetxean nora jo izango zalantzak eta arazoak sortuz gero, ikastetxeak horretarako baliabiderik prestatu ez duelako. Bestetik, neska-mutilek hainbat aurreiritzi jasoko dituzte, zalantzarik gabe, gizarteratzean esku hartzen duten bestelako instantzietatik, eta ez dute eskura informazio egokirik izango aurreiritzi horiei aurre egin ahal izateko.

IKASGELAN SEXU-ANIZTASUNARI BURUZ HITZ EGITEA ERRAZTEN DUTEN FAKTOREAK

Logikoa denez, ikasgelan sexu-aniztasunari buruzko edukiak lantzea oztopatzen duten faktore guztiak aztertu eta itzultzen baditugu, zeregin horretarako mesedegarri gertatuko diren aztarnetako asko aurkituko ditugu. Atal honetan, elkarrizketaturiko irakasleentzat aniztasun afektibo-sexualari eta familiarrari helderakoan baliagarri gertatu diren elementuetako batzuk azalduko dira.

a) Ikasgelan eztabaidatzeko ohitura dago:

Emakumezko irakasle honek metodo pedagogiko jakin batzuk erabiltzen ditu haurrekin, haurren arteko eztabaida, esaterako, eta horri dagokionez honako hau esan du: «6.eko taldea eztabaidatzen oso ohitua dago, eta oso ongi dakite elkarri entzuten, txandaka hitz egiten... hori baliaturik, gaia eztabaidatik eta gozamenetik landu nuen, bi ordu ematen dituzte hizketan jarraian, bi ordu ekarpenak egiten, beraz. Fitxa bat jartzen badiezu, aldiz, lan baten antzera ikusten dute, eta gehiago kostatzen zaie hartaz gozatzea. Niri materiala izugarri polita iruditu zitzaidan. Familien jokoa ez da oso ohikoa eta izugarri gustatu zitzaien, oro erakargarri ikusi zuten, jolas-tarteetan karta sortak erabili genituen eta oso ondo daude, ipuina ere ederra da, irudi politak ditu eta ongi idatzita dago, izugarri gustatu zitzaidan, hasiera batean harrigarria ere izan daiteke, bi neska elkarrekin gustatzea bitxi samarra da haien zat, normalean ez diegu halakorik kontatzen... eta zentzu horretan oso talde berezia da, oso proiektu berritzaile batean murgildu direlako eta proiektuak beste zenbait talderekin jarraipena izan dezan eredu gisa baliagarri izango delako. Baina talde hau nahiko berezia da, ia dena eztabaida daitekeelako...»⁵⁰

Azken pasarte horretan, nabarmentzekoa da eduki horiek lantzea ikasgelan metodo pedagogiko berritzaileak erabiltzearekin lotzen dela. Emakumezko irakasle horrek argi eta garbi adierazi duenez, eztabaida oso bide egokia izan daiteke aniztasuna lantzeko, haurrak aspertu ohi dituzten betiko fitxak erabili beharrean. Gainera, nabaria da materialaren erakargarritasuna eta gaia ikasgelan lantzea uztartu egiten direla. Emakumezko irakasle horrek ideia interesgarri bat aurreratzen digu, beraz: curriculum-eduki jakin batzuei heldzeko, finkaturiko metodologia zaharkituak alde batera utzi behar dira, haurrentzat ludikoagoak eta dibertigarriagoak izan daitezkeen modu berrien alde eginez.

b) Metodo konstruktibista bati jarraitzea

Aurreko atalaren ildo beretik, irakaskuntza-metodo tradizionalak baino berritzaileagoa, malguagoa eta biziagoa den metodo konstruktibistari jarraitzea egokiagoa izan daiteke eduki berritzaile batzuk —sexu-aniztasuna, esaterako— ikasgelan landu ahal izateko oinarriak ezartzearen. Ez da kasualitatea «Sexu-aniztasuna eta familia berriak» proiektuaren hezkuntza-materiala erabili duten irakasleek aldi berean metodo konstruktibistari jarraitzea beren hezkuntza-praktikan. Emakumezko irakasle batek metodologia horren bereizgarri batzuk aipatu ditu:

«Material osagarriak ez ditugu testuen bitartez lantzen, irakaskuntza-metodo konstruktibista erabiltzen dugulako. Gaztelaniaren irakasgaian, esaterako, material ugari erabiltzen dugu, eta haurrentzat interesgarri eta aberasgarri izan daitezkeen material, oro erabil dezakezu. Bakoitzak bere materialak antolatzen ditu.»⁵¹

49 MUJICA FLORES, Inmaculada: «Visibilidad y participación social de las mujeres lesbianas en Euskadi» in Ararteko Colección DDHH «P. Francisco de Vitoria», Donostia, 2007, 35. orr.

50 I. elkarrizketa

Emakumezko irakasle horren ustetan, metodo konstruktibistak askatasuna ematen dio irakasleari, ikasgelan gaiak lantzeko baliagarri gerta daitezkeen materialak erabil ditzan. Ez dago alde zurririk ezarritako testu edo liburu finkorik, eta horrenbestez malgutasuna askoz ere handiagoa da, ez soilik materialen kopuruari dagokionez, baita materialen aniztasunari dagokionez ere. Gainera, materialak hautatzeko askatasun handiagoa ematen du metodo horrek, hautaketa hori ikasgelaren testuinguruaren baldintzapean jarritz. Horri dagokionez, beheko pasartean interesgarria da ikustea nola emakumezko irakasleak oso argi uzten duen «Sexu-aniztasuna eta familia berriak» hezkuntza-paketearen zein material diren baliagarri eta zein ez:

«Hezkuntza-materialak ez dira erabiltzen proiektuari ez badagokio, ez dut material hori nire proiektuaren osagarri gisa behar, ez dugu fitxarik erabiltzen eta horregatik unitate didaktikoak ez ditugu erabili, mota guztietako kartak, ipuinak eta abar, ordea, interesgarriak eta oso baliagarriak dira».⁵²

Konstruktibismoaren ikuspegitik, materialen kopuru egokia jasotzea (ikastetxeetako irakasleen kexa nagusietako bat) ez litzateke arazo izango, ikasgelan testu finkoak erabili behar ez dituztenez, iristen zaizkien material ugarietara aukera askoz ere handiagoa litzatekeelako.

Gainera, metodo konstruktibistak ez du esan nahi irakasleek landu beharreko helburu eta edukien ildo jakin bati jarraitzen ez diotenik, emakumezko irakasle batek elkarriketan adierazi duen bezala:

«Guk proiektuak lantzen ditugu, eta proiektu bakoitza interes jakin batzuetatik sortu da nolabait, ez dugu metodo zehatzik, ezta libururik ere. Helburuak curriculumean ezarri ditugu, generokoak, diskriminaziokoak... zenbait jarraibide ezarri ditugu, eta horien arabera jarduten dugu. Zer egin dugu hasierako zikloan? Kartak oso interesgarriak iruditzen zitzaizkigun, eta erabiltzen dugun metodologiak aukera ematen digu kartak egunero erabiltzeko.»⁵³

Metodo konstruktibista oso aukera positiboa da ikasgelan ohikoetatik ateratzen diren gaiak lantzeko, gai horiek teknika berritzaileak, haurrentzako erakargarri eta dibertigarri direnak, eskatzen dituztelako. Gizonezko irakasle bat honela mintzo da, horren haritik:

«Jendea oso eroso da, oso lasaia, esaterako, konstruktibismoa oso aukera positiboa zen ikasgelan lantzeko... Ba ez, jendeak lehengoarekin jarraitu nahi du, aurrekoa behin eta berriz errepikatuz. Aurten, neskato batek zera esan zidan ikastetxera lehen aldiz etorri eta berehala, astelehen orria, astelehen orria asteen zehar egin beharreko biderketa, batuketa eta kenketez horniturik ematen genien orria, ez emateko. Zer lortu nahi da jarduerak horiekin? Haurra aspertzeko eta homogeneotasuna, ez dezatela pentsa, ez diegu pentsatzen zuten, ezin dute zer nahi duten eta zer ez adierazi, zergatik egiten dudan hori...»⁵⁴

Sexu-aniztasunarekin zerikusia duten edukiek pentsamolde ireki eta kritikoen beharra dute, gizarte-aurreiritzia zalantzan jartzen duten eta, gure gizartean sexualitateak antolatzen diren moduari dagokionez, eskema konbentzionalak apurtu egiten dituzten alderdiak biltzen dituztelako. Horretarako, irakasleek eduki jakin batzuetara egokitutako metodologia erabiltzeko gauza izan behar dute, eduki horiek, gaur egun, beste curriculum-gaiek baino irakaskuntza-metodo ausartagoak behar dituztela kontuan hartuta.

c) Ikastetxean barne-aniztasun handia bizi da:

Elkarriketa batean horren berri eman ziguten, eta horrek hausnarketa egitera eramán gintuen, ikastetxearen ezaugarrien eta ezaugarri horiek aniztasunari loturiko gaiei helderakoan eman ditzaketen erraztasunen arteko konexioaren inguruan. Testuinguru horretan, orientazio sexualen aniztasuna askoz ere modu integratuagoan lan daiteke, eta, horrela, ikastetxearen idiosinkrasiara bilduko litzateke, askoz ere modu «naturalago» batean. Horri dagokionez, elkarriketaturiko emakumezko irakasle batek honako hau adierazi du:

51 I. elkarriketa

52 IV. elkarriketa

53 VI. elkarriketa

54 III. elkarriketa

«Ikasleei betiere esaten diet ikastetxean hatxea non jarri behar duten edo trigonometria-problema bat egiten ikasiko dutela, baina besteekin bizitzea dela ikasiko duten gauzarik onena; ikastetxe hau ingelesa da, eta pasadizoko ikasle asko ditugu, 34 herrialdetako pertsonak biltzen dira hemen, eta jatorrizko aniztasuna erabatekoa da. Haiek, noski, konturatzen dira; gure ikasgelan, esaterako, 17 gara, eta 7 baino ez dira hemengoak, gainerako hamarrak beste herrialdetakoak baitira..., aspalditik dute aniztasun horren berri eta ez dira horren beldur. Beste batzuek, «zer egin immigrazioarekin» eztabaidatzen duten bitartean, guk badakigu zer egin, Errusiatik datozen eta gaztelaniaz egiten ez dakiten haurrei laguntzeko figurak sortu ditugu; aurreneko egunetan «enbaxadoreak» laguntzen die, aurkezpenak egiten ditu, integratzen ditu... denbora asko daramagu horrelako gauzak lantzen, urte hauetan guztietan joan-etorrian dabilen jendea ezagutu dugu, arrazaren, kolorearen gaia oso landuta dago, eta haurrak ez dira horren beldur».⁵⁵

d) Ikastetxean erraztasunak ematen dira:

Aurreko atalean, ikastetxeak irakasleei gai jakin batzuk emateko erraztasunak ez emateak zer arazo dakartzan ikusi dugu. Oraingo honetan, ordea, alderantzizko egoera aurkeztu behar dugu hain justu ere, eta horren haritik, berriz ere azpimarratu behar dugu ikastetxearen inplikazioa garrantzi handikoa dela sexu-aniztasuna ikasgeletara benetan eraman ahal izateko. Emakumezko irakasle baten deskribapen hau nahikoa izan daiteke inplikazio horrek zenbaterainoko garrantzia duen ikusteko:

«Esan beharra daukat ikastetxe honetan erabateko askatasuna dugula hautatzeko. Irailean, oinarritzko edukien egutegia aurkezten da, hurrengo ikasturterako behar dutena alegia, eta behin oinarritzko edukien egutegi hori bete ondoren (erraza izaten da normalean, gutxieneoak bakarrik biltzen baitira), erabateko autonomia ematen digute materialak hautatzeko, kanpo-irtenaldiak egiteko eta abar. Proiektua aurkezten duzu, eta aurrera, beharrezko bitarteko guztiekin gainera,...Eta horrek freskura handia ematen du...»⁵⁶

Ikastetxeak erraztasun handiagoak edo txikiagoak jar ditzake, beraz, irakasleen eskura, ikasgelan sexu-aniztasuna emateko. Nolanahi ere, horretaz aparte, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak ere beharrezko neurriak bultzatu behar ditu sexu-aniztasunarekin zerikusia duten edukiak biltzen dituzten proiektuen bidea errazteko. Horren haritik, elkarriketaturiko gizonetako irakasle batek⁵⁷ honako hau adierazi du: «Berritzegunean zera esan digute, Eusko Jaurlaritzak gogo handia duela ildo horretatik doazen proiektuak ordaindu eta indartzeko. Guri eman daitekeen gehienekoa eman digute (2000 Euro)».

Ildo beretik, emakumezko irakasle batek honako hau adierazi digu:

«Sailak helburu orokorrak ezarri ditu dagoeneko. Nork egingo du hurrengo urratsa? Hemen, ikasgelan, egunero-egunero egoten garenok egin beharko dugu»⁵⁸

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak⁵⁹ gure gizartea etengabe aldatzen ari dela aintzat hartuta, garrantzi berezia eman nahi dio hezkuntzari, ikasleak hiru dimentsio nagusietan gara daitezen: pertsonalean, sozialean eta profesionalean, hori guztia euskal gizartea geroz eta aurreratuagoa, aberatsagoa, bidezkoagoa eta solidarioagoa izan dadin. Hezkuntza-ekintzarako ezarri diren ardatzetan orientazio sexualen eta familiarren aniztasuna berariaz aipatu ez bada ere, hezkuntza-ekintzarako diseinaturiko esparru orokorrean zenbait puntu adierazi dira, eta horien bitartez ezin hobeto hel dakeie berariaz aniztasun sexualari eta familiarri buruzko eduki guztiei.

Hala, Hezkuntza Sailak honako eginkizun hauek ezarri ditu, besteak beste:⁶⁰

- Pertsona guztiek kalitatezko hezkuntza jasotzeko eskubidea bermatu beharra. Horrek honako hauek eskatuko lituzke: bitarteko guztiak jartzea, pertsona guztiek eskola-

55 I. elkarriketa

56 I. elkarriketa

57 Ibidem

58 VI. elkarriketa

59 Eusko Jaurlaritza- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, Hezkuntza berriztatze lehentasun-ildoak 2007-2010, Vitoria-Gasteiz, 2008

60 Ibidem, 11-13 orr

arrakasta lortzeko aukera berdinak eduki ditzaten, arrakasta hori sexuaren, ezintasunaren, egoera sozio-ekonomikoaren, kulturaren, hizkuntzaren eta jatorrizko etniaren mende jarri gabe; ikasle guztiek ikasi eta parte har dezaten sustatzea, hezkuntza- eta gizarte-bazterkeriaren arriskuan dauden ikasleei dagokienez bereziki, eskola-ingurunean hezkuntza-inklusioa galarazten edo eragozten duten oztopo guztiak detektatuz eta ezabatuz; eta pertsona guztien eskura beharrezko bitarteko guztiak jartzea, nork bere bizi-proiektu pertsonala garatzeko beharrezko gaitasunak eskuratzeko aukera izan dezaten.

- *Hezkuntza-eremutik proiektu kolektiboa eraikitzen eta sendotzen laguntzea. Besteak beste, honako ezaugarri hauek bildu beharko ditu proiektu horrek: euskal gizartea balio demokratikoen oinarriaren gainean sendotzea, giza eskubideak errespetatzea, lankidetzak, elkartasuna, iraunkortasuna, bakea, desberdintasunak gainditzea, diskriminazioko edo gizarte-bazterkeriako modu oro baztertzea, eta askatasun indibiduala mugatzeko ahalegin oro deuseztatzea.*
- *Eskari indibidual eta kolektibo berriei erantzuna emateko hezkuntza-sistemak behar dituen aldaketa-prozesu guztiak gidatzea.*

Era berean, Euskal Hezkuntza Sistemarako ezarri diren balioen artean, honako hauek nabarmendu behar dira:⁶¹ prozesuen berdintasuna, desberdinak direnen edo desberdintasun-egoeran dauden aukera-berdintasuna bermatzeko. *Askatasuna, pertsona bakoitzak bere proiektu indibiduala gara dezan; eta (pertsonek, aukerak, kulturen eta abar) aniztasunaren inklusioa.* Horretarako aukeratu den Hezkuntza Sistemak honako printzipio hauek ditu oinarritzat: hezkuntza-komunitateak parte hartzea, helburuak eta jardun-ildoak zehazterakoan eta prozesu eta emaitzak balioesteko; erantzukizun indibiduala, eginkizun eta zereginak gauzatzeko; eta hezkuntza-eragile guztien autonomia, eginkizunak gauzatzeko.

e) Materialak lantzerakoan, haurrak kontuan hartzea:

Elkarriketetan nabarmendu denez, haurrekin uztartuko diren materialak sortu behar dira. Halaber, hori garrantzi handikoa izango da ikasgelan orientazioen aniztasuna ulertarazteko. Irakasle batek honako hau adierazi du «Sexu-aniztasuna eta familia berriak» proiektuan argitaraturiko materialen balioari dagokionez:

«Materialak oso erakargarriak dira haurrentzat, nahiz eta bigarren ziklokoak izan. Zer gertatzen da? Matematikan, materialetan ageri diren jardueretako asko ez dituzte inoiz ikusi, eta material horiek, beraz, beste ikuspegi bat ekarri dute, problemetan logika lantzen da, eta soluzioek puzzle bat osatzea, buru-hausgarri bat egitea, labirintoari jarraitzea ahalbidetzen dute eta abar, ... oso erakargarria iruditu zitzaizkion, azken puzzleetako batean, haiei bat zaldi baten gainean ageri da, eta polita izan zen, ipuinaren hiru amaierekin nahikoa ez eta beste hainbat eztabaidatu zituztelako.»⁶²

Zalantzarik gabe, balio handikoa da haurrekin uztartzen diren eta haurrak murgildurik eta identifikaturik sentitzen diren materialak egitea. Emakumezko irakasle batek honako hau adierazi du ikasleen eta hark ikasgela erabilitako materialen arteko konexioaren inguruan:

«Eta protagonistak bi neska izateari ez diote aparteko garrantzirik ematen, abenturak gustatzen zaizkie gehiago, musuarekin geratzen dira eta gertatzen dena dute gogoko, abentura, gaztelua, printzea, ... horrelako gauzak... neskek izateak, hasiera batean ustekabe harrapatzen ditu, baina berehala ohitzen dira... Ikasgelan badago mutiko bat bi ama dauzkana; gainera, ezkontzekotan dira, eta ikaskide guztiek dute horren berri...»⁶³

61 Ilbidem, 13-14 orr.

62 I. elkarriketa

63 V. elkarriketa

Horren haritik, garrantzi handikoa eta berezi motibagarria da erabilitako materialak eta haurren gizarte-errealitatea uztartzea. Gizonezko irakasle bat honela mintzo da horren inguruan:

«Jendea oso animatua dago, onena haurren jarrera da, zoragarria da benetan; ordu eta erdiko saioa daukat, eta lehenbailehen pasatzen da, irakurtzen, iruzkinak egiten, idazten... eta kalean dagoena ari dira ikusten, ez beste mundu bateko estralurtarrik. Eta haurrek, gainera, zera ikusten dute, ikasten ari diren hori telebistan ere ageri dela. Ikastetxera ikastera joaten direla esaten dute. Guri gertatu zaigu haur hegoamerikar batzuk ziber batera joatea ikasgelan eskaturiko materialak ateratzeko, beren poltsikotik ordainduta gainera, horrek meritu handia dauka»⁶⁴

f) Talde trinkoa osatzen duten irakasle motibatuak:

Elkarriketatik ondorioztatu dugunez, komenigarria da ikastetxean talde trinko bat edukitzea, zailtasunik izanez gero harengana joan ahal izateko. Horrek, halaber, sexu-aniztasunarekin zerikusia duten gaiak ikasgelan lantzea errazten du. Hori bereziki garrantzitsua da, ikastetxeko irakasle guztiek ez dutelako zertan menderatu ikastetxean eman nahi diren irakasgai guztiak, are gehiago sexualitatearen gaia erabilgaitza dela kontuan hartuta. Hortaz, sortzen diren zailtasunak argitu behar dira eta ikasgelan zailtasun horiek nola landu aztertuko duen kolektibo baten presentzia beharrezkoa da ikastetxean.

Emakumezko irakasle batek honako hau adierazi digu ezaugarri horren inguruan:

«Den-dena taldean lantzen dugu, taldean gure zailtasunak konpartitu eta gai horiei nola heldu hausnartu egiten dugu, gai guztien konponbideak guztion artean bilatzen ditugu, eta, aurkitu ezean, aholkulari egokiak bilatzen ditugu.»⁶⁵

Emakumezko irakasle horrek ikastetxe txiki batean lan egiten du, eta, horri esker, talde egokia osa dezakete, irakasgai konplexuak —aniztasuna afektibo-sexuala, esaterako— emateko abantaila handiak dakartzaten ezaugarri berezi batzuekin. Emakumezko irakasle horrek honela jarraitzen du:

«Taldea txikia osatzen dugu, familia baten antzera, eta horrek, desabantaila ugari baditu ere, hainbat onura ere baditu: esaterako, jasotzen dena curriculumera biltzeko aukera. Esaterako, curriculumak nik egiten dut ikastetxearen izenean, nik erabakitzen dut nire lanaren nondik norakoak, eta helburuak ongi islatuta dauden edo ez, nola eraman hori praktikara? Guk ez dugu zailtasun handirik horretarako. Esaterako, lehen ziklora arte eta bigarrenaren curriculumaren barnean dugu eta proiektu bat eratzen ahalegintzen gara, eta, behin proiektua zehaztuta, norberak bere gain hartzen du proiektua praktikara eramatea»⁶⁶

Zenbait irakaslek arazoak izan ditzakete irakasgai jakin batzuk —sexu-aniztasuna, esaterako— lehen aldiz ematerakoan, eta talde txikiak irakasle horiek errazago integratzeko bide ematen du.

g) Tutoretzan materialak erabiltzea:

Aniztasunarekin zerikusia duten gaiak tutoretzetatik ere hel dakieke, tutoretzetan horrelako gaiak buruzko prestakuntzarako eremuak lantzen eta sortzen baitira. Baliabide hori lehen hezkuntzako goi-mailetan erabiltzen da bereziki, maila horietan gaiak eta curriculumak zehatzago lantzen direla aintzat hartuta. «Aniztasuna eta familia berriak» proiektuaren pakete didaktikoaren materialak nola erabiltzen dituen galdetuta, emakumezko irakasle batek honako hau adierazi digu:

«Ipuina eta fitxak baino ez ditugu erabili, gida tutoretzan landu dugu, daukan helburua pixka bat lantzeko, sexu-aniztasuna eta hori guztia lantzeko alegia... Sexu-aniztasunaren esanahia idatzita jaso eta erreparatzeko erabili dugu. Tutoretzan ere eztabaida hori islatu nahi dugu, kalean ikusten den zerbait delako.»⁶⁷

64 I. elkarriketa

65 VI. elkarriketa

66 Ibidem

67 V. elkarriketa

Emakumezko irakasle horrek adierazi duenez, tutoretzan, haurrentzat zuzenean diseinatu ez den materiala lantzen da, irakasle eta familientzako gidak, esaterako.

2005-2006 ikasturtean, Rivas Vaciamadrid udalerriko Duque de Rivas BHIak ekimen interesgarria jarri zuen abian —udalerrri horrek 50.000 biztanle ditu, eta Madriletik ekialdean dago—. Espainiako Estatuan lehen aldiz jarri da abian esperientzia hori, eta, ezbairik gabe, jarraibide batzuk ezar ditzake etorkizunari begira. Aniztasun Afektibo-Sexualaren Arreta izeneko tutoretza da, eta ikastetxearen zuzendaritzak onartu zuen hura abian jartzea. Besteak beste, tutoretza horrek honako helburu hauek ditu: LGTB nerabeei arreta eskaintzea, hezkuntza-sentsibilizazioko kanpainak egitea eta irakasleen prestakuntza.

Ikasgelan sexu- eta familia-aniztasunari buruz eginiko praktika onen adibideak

Askotan, irakasleek ez dakite sexu-aniztasuna ikasleekin nola landu, eta horregatik gai hori ez da curriculum-edukietara biltzen. Alabaina, arrazoi hori ez da esanbidez adierazten gehienetan.

Jarraian, ikasgelan landutakoaren adibide batzuk aurkezten dizkizuegu, elkarriketetatik atera direnak, oso interesgarria iruditu zaigulako horien berri ematea, sexu-aniztasunarekin zerikusia duten mezuak haurrei nola helaraz dakizkiekeen ideiak ekartzeko baliagarri gerta daitezkeen neurrian.

1. adibidea:

«Nik gaztelania irakasten dut, eta ostegun arratsaldea literatura-osteguna da, edo testuak sortzen edo aztertzen ditugu, edo astean zehar irakurritakoa aurkeztu egiten dute, eta ia beti, testu bat aurkezterakoan, irakurtzeko gogoia sorrarazi behar diete besteei, testua irakurri behar dute eta unerik gorenean geratu, testua irakurtzeko gogoia pizteko, eta ni Iris eta Lila ipuina irakurtzen hasi nintzen eta une jakin batean geratu nintzen, eta ikasleek zera esan zidaten, «segi aurrera, nola amaitzen den jakin nahi dugu-eta», eta amaiera posible batzuk eman genituen,... azkenean, zenbait alternatiba aurkeztu ondoren, testu osoa irakurri genuen. Pena da salbuespena izatea, normalean jasotzen den mezua politikoki zuzena baita: printzea eta printzesa ezkondu ziren, eta seme-alabak eduki zituzten eta eperrak jan zituzten...»⁶⁸

2. adibidea:

«Taldea badira bi neska oso lagunak direnak eta «Lara Bibianarekin» dioten kartelak jartzen dituztenak, oso lagunak dira, eta orduan mutiko batek zera esan zuen berehala «ah! Lara eta Bibiana bezala», eta neskak defentsibari jarri ziren, «gu ez gara lesbianak!» esanez, eta nik esan nien oraindik oso txikiak direla edozertarako, heterosexualek direnik ere ezin daitekeelako esan, oso txikiak direnez sexu-harremanik ez dutelako, hamar urte baino ez dituzte eta normala da, ikusiko da zer diren, zer gertatzen den, baina zoragarria da elkar maitatzea, inork ezin dezake burla egitea horren kontura, inbidia pixka bat sentitzen dugu, besterik ez, bi pertsona elkarri loturik daudela eta bi baino gehiago direla ohartzean..., hori bai, jenio biziko neskak dira, besteak mugiarazten dituzten horietakoak, eta berehala egin zieten aurre ikaskideei, bilatzen ari ziren paralelismoa ezerezean uzteko..., eztabaidak aurrera egin ahala, ordea, gaiaren dramatismo-karga arindu zen, aldezturik homosexualak tik jakin batzuk zeuzkatela uste zutelako, edo gauza bereziak egiten zituztela, gainerako pertsonen ez bezala,... estereotipoen arabera jokatzeko dute,... eta nik herritarren % 15 homosexuala dela adierazi nien, 20ko ikasgela batean bat edo bi gutxienez homosexualak izango direla eta sekulan ere ez zaigula ezer ere gertatu,... hau da, zuen sexualitatea azaleratuko den egunean, norbaitekin sexu-harremanak izango dituzue, batzuek sexu desberdineko pertsonekin izango dituzuela, eta beste batzuek, aldiz, sexu berekoekin, baina inori ere ez zaigula axola izango, harremanek intimoak behar dutelako, gizarte-bizitzatik apartekoak, eta horretan jarraitzen dugu lanean, eta talde honetakoek ondo ulertu zuten... 4. eta 6. taldekoekin landu dugu bakarrik, bederatzi urtekoekin eta hamaika urtekoekin, hurrenez hurren. 4. taldekoak txikiagoak dira, eta ez ziren ez harritu ez kezkatu, gauzak fantasiaren munduan kokatzen dituzte oraindik ere, eta

haientzako horixe zen, hain zuzen, fantasia errealitatea baino gehiago, errealitatearekiko antzekotasun bat ere ez baitzuten aurkitu»⁶⁹

3. adibidea:

«Iris eta Lila ipuinaren materialei dagokienez, 2007ko irailean ekin genion ipuina lantzeari. Ipuina landu duten haurtxoak 5. mailan daude, eta, teorikoki 2. zikloa amaitu dute, 2. zikloko materialak hartu, eta hilabete horretan landu genituen; gainera, proiektua gaztelaniaz landuko dugu, hartara nire lankideak eta biok hiru mailetan landuko dugulako. Nolanahi ere, material horiek euskararen eta gaztelaniaren eredueta landu genituen, euskaraz zein gaztelaniaz. Testuak irakurri genituen, pertsonaiak deskribatu genituen, ipuinean datozen hiru amaierak eztabaidatu genituen eta beste zenbait alternatiba bilatu».⁷⁰

4. adibidea:

«Honako dinamika honi jarraitzen diogu: liburu bat, ipuin bat, oinarritzat hartuta, zenbait jarduera didaktiko egiten ditugu, hizkuntza-jarduerak bereziki, edukiak lantzeko, prozedura-helburuak ez ezik, ortografia-helburu gramatikalak ere lantzearen. Ipuina zatitu eta poliki-poliki aztertzen da, irakurritz eta hari buruzko lanak eginez. Jarraian, haur bakoitzak gaiari buruzko ipuin bat irakurtzen du, irakurtzeko eta eztabaida abiarazteko. «Iris eta lila» ipuinari lotuz, kontzeptu jakin batzuk lantzen ditugu, hala nola «itsusia/guapoa», «bakarrik sentitzen naiz», «bakarra naiz», ...eta zera, aurkitzen dute, ez direla istorio bereziak dituzten bakarrak, haiek bezalako beste hainbat «arraro» daudela, eta haurtxoei ohartarazten diegu horrelakoak garela, eta munduan norbera bezalako beste hainbat badaudela, eta bakoitzak bere burua onartu behar duela, eta, zerbait gertatuz gero, gugana etor daitezela, haurrak proiektuarekin liluratuta egotea, huraxe da politena».⁷¹

69 Ibidem

70 III. elkarrizketa

71 Ibidem

Ondorioak***Ebaluazio kuantitatiboari dagokionez:***

Ikastetxe gutxi erantzun diote galdesortari, % 20k bakarrik, eta hori bat dator hezkuntza-materialaren erabilera urriarekin, erantzuna eman duten ikastetxeetako erantzunen arabera, ikastetxe horien % 20k baino ez baititu materialak erabili.

Erantzunek etorkizunean erabiltzeko gogoia ematen dute aditzera. Materialak erabili ez izanak ez du esan nahi irakasleentzat interesgarri ez direnik. Aitzitik, hainbat ikastetxek materiala etorkizunean erabiltzeko asmoa adierazi dute, ahalmen pedagogiko handia duela ikusten baitute. Horren ildotik, datozen ikasturteetan materiala kontuan hartzeko asmo argia adierazi dute ikastetxeek.

Material pedagogikoa interesgarritzat eta praktikotzat jotzen dute, eta beren printzipio eta balio orokorrekin bat datorrela balioetsi dute. Ikastetxe gehienentzat, horrelako materialak baliagarri dira ikasgeletan sexu- eta familia-aniztasunari heltzeko.

Horrelako materialak eskura edukitzea interesgarritzat jo ez duten ikastetxe gehienek zera adierazi dute, materialak ez datozela bat ikastetxean ezarri nahi duten hezkuntza afektibo-sexualeko planarekin. Horrelako erantzun eta arrazoibideak itunpeko ikastetxe pribatu eta erlijiosoetatik etorri dira batez ere.

Nabarmentzekoa da materialak erabiltzeko zailtasunen garrantzia txikia dela material pedagogikoak ez erabiltzeko emandako arrazoen artean.

Material pedagogikoak erabili ez izana balioesterakoan, badago kontuan hartu beharreko oztopo handi bat: hezkuntza-paketea 2006-07 ikasturtean bidali zen, baina ikastetxeetan beranduegi jaso zuten, eta ez zuten eskola-curriculumaren edukietara biltzeko aukerarik izan. Ikastetxe askok, arrazoi hori dela-eta materialak aztertze edo erabiltzeko astirik ez zutela izan adierazi dute. Nabarmentzekoa da hezkuntza-paketea garaiz jaso zuten ikastetxeek erabili egin dutela, eta, partzialki bada ere, curriculumera bildu dutela.

Ikastetxeek, materialak jaso eta gero, hainbat toki desberdinetan utzi dituzte, eta horren zergatia aztertu beharko litzateke. Hala, zenbait ikastetxetan liburutegira eraman dute hezkuntza-paketea; beste batzuek, aldiz, aholkulari edo orientatzailearen esku utzi dute, eta beste batzuek hezkuntza bereziko arlora bideratu dute. Jarrera horrek agerian uzten du jendeak askotan ez dakiela materialarekin zer egin edo materiala nola erabili. Horrelako edukiak ezohikotzat hartzen direla ere adierazten du nolabait.

Materialari lehen hezkuntzako zikloetan ematen zaion erabilerari dagokionez, aipatzekoa da materiala hainbat modutan erabil dela. Oro har, ikastetxe batek ez ditu materialak ziklo guztietan erabili. Oso gutxi dira horrela jardun duten ikastetxeak. Horrela aditzera ematen duenez, materialen erabilera, funtsean, irakaslearen inplikazioaren mende egon da, eta ez ikastetxe osorako programazio jakin baten mende.

Alde handiarekin, kartak eta ipuinak dira hezkuntza-paketetik gehien erabili diren materialak.

Zenbait ikastetxek adierazi digutenez, materiala ez dute erabili NAHIKO izeneko programa erabiltzen ari direlako, genero-indarkeria prebenitzearren. Horren haritik, NAHIKO proiektuan sexu-aniztasunari loturiko edukiak lantzen zirela adierazi ziguten, horrela ez bada ere. Horrek sarri ageri ohi den uste oker bat erakusten du, hain zuzen ere emakume eta gizonen arteko berdintasunari loturiko gaiak aztertzearekin batera sexu- eta familia-aniztasunari loturikoak aztertzen direla.

Oro har, ez dirudi ebaluazio kuantitatiboaren datuak oso positiboak direnik. Ikastetxe gutxi batzuetan baino ez dituzte materialak erabili, baina datu horren aurrean, zera hartu behar dugu kontuan, «Sexu-aniztasuna eta familia berriak» proiektua proiektu aurreratua dela neurri batean, eta, poliki-poliki, irakasleak proiektua badagoela eta erabil dezaketela jabetuko direla, gizartearen sexu- eta familia-aniztasunaren inguruko eskariak gora egin ahala. Seguru gaude datozen urteetan horrelako materialak modu sistematikoagoan

erabiliko direla Euskal Hezkuntza Sisteman. ALDARTEn proiektuaren ardura duenak honako hausnarketa hau egin du ildo horretatik :

«Jendeak argi ikusten du etorkizunerako proiektua dela,... zorionez, abian da jada, eta litekeena da bi edo hiru urtetan onarpen-maila handiagoa izatea, ordurako jendea proiektua badagoela eta erabil daitekeela konturatuko delako...»⁷²

BERDINDUren arduradunak honako hau adierazi du proiektuaren inguruan :⁷³

«Proiektu honetan hutsune ugari nabari dira... eta ez dakigu zer gertatu den, materiala ikastetxe guztietan jaso da, baina irakasle guztiek ez dizute esaten jaso zutela zekitenik. Funtsean, materialak zuzendaritzara iritsi dira, eta zenbait irakaslek horren berri izan dute, baina klaustroko gainerako kideek ez. *Batzuetan armairura joan da zuzenean*»

Aurkituriko mugak gorabehera, gure ustez proiektuak oso emaitza positiboak lortu ditu, gizartearen eta bizitzaren premia jakin batzuk argitara atera baititu. Izan ere, kontuan hartzekoa da irakasle ugari gaia lantzeko gogoia adierazi dutela, eta, haietako askorentzat, materiala benetako abiapuntua izan dela. Iraungo ahal du, armairuen barnealdetik bada ere!

Ebaluazio kualitatiboari dagokionez:

Azken urte hauetan, Euskadin aurrerapauso handiak egin dira gizartean eta legeriaren arloan, eta Euskal Hezkuntza Sistemak horretara egokitu behar du nahitaez, aniztasun afektibo-sexuala eta familiarra zokoratu gabe, errealitatearen garrantzizko alderdia den aldetik. Aniztasun hori kalean, telebistako saio eta albistegietan eta politikan da nabari, eta behar-beharrezkoa da lehen hezkuntzako ikastetxeetara ere eramatea, haur, nerabe eta gazteen artean berdintasunezko eta elkarrekiko errespetuzko balio eta jarrerak sustatzeko harreman afektibo-sexualean, ez bakarrik tratatu txarrak eta indarkeriak prebenitzeko, baita haurrei sexualitatea autonomia eta askatasun handiagoz erabat gozatzeko bidea errazteko ere.

ALDARTE zentroan dugun esperientziaren arabera, badakigu hezkuntzaren eremuan jarduten duten pertsona asko informazioa eta prestakuntza eskatzen ari direla, aniztasun afektibo-sexualaren eta familiarren gaia koherentziaz lantzeko. Ondo asko dakigu, halaber, bitarteko eta tresna gehiago behar dituztela, egin beharreko zeregina behar bezala garatu ahal izateko. Hala, beharrezko ikusten dugu tresna jakin batzuk abian jartzea, hain zuzen ere sexualitatearen arloan giza jokabideen inguruko hausnarketak ahalbidetuko dituzten tresnak, jokabide-hierarkiarik gabeko ikuspegietatik begiratuta. Tresna horiek zera irakatsi behar diete haurrei, aniztasunarekiko errespetua ez dela haientzat galera izango, irabazia baizik.

Eskola-curriculumera bildu ezean, aniztasun afektibo-sexualarekin eta familiarrekin zerikusia duten edukiek ez dute etorkizun handirik izango. Gai horiek ikasgeletara eraman nahi dituzten irakasle gehienek ahotan behin eta berriz entzun dugu hausnarketa hori, era batean zein bestean. Hori funtsezkoa dela iruditzen zaigu, aniztasuna ikasgelan lantzea ezin daitekeelako bakarrik irakaslearen borondatearen mendean egon, irakasleek sarritan ildo horretako proiektuak bakarka landu behar dituztela aintzat hartuta, edukiak proiektu orokorrera biltzeko behar bezalako inplikazioa erakusten ez duen zuzendaritzaren laguntzarik gabe.

Aurreko hausnarketaren haritik, ezinbestekoa da Hezkuntza Sailak aniztasun afektibo-sexualaren eta familiarren defentsa eta errespetuarekin zerikusia duten printzipio eta balio pedagogikoak aintzat hartzea, esanbidez aintzat hartu ere, baita curriculumaren lan-ardatzetan ekintza jakin batzuk biltzea ere, irakasleek aniztasun horri bete-betean heltzeko aukera izan dezaten, ikasgeletan aniztasuna zer den azaltzeko erantzukizun osoa beren gain hartu ezin dezaketela aintzat hartuta. Elkarriketaturiko irakasleetako batek oso garbi hitz egin du premia horren inguruan:

«Zoritxarrez, edo gaia horrelako gauzak lantzea behartzen duen eskola-programa baten barnean agintzen da edo ez da ukitzen. Eta Hezkuntza Sailak eskatzea litzateke hura

72 VIII. elkarriketa

73 VII. elkarriketa

lortzeko modu posibleetako bat. Gurasoen eskariaren haritik ere etor liteke, baina hori ia ezinezkoa dela iruditzen zait. Izan ere, ugalketaren eta sexualitatearen gaia modu erraz batean, neska-mutilen eskaerei jarraiki, landu behar dugula adierazten diegunean, izugarri beldurtzen dira, eta hori hain adin goiztiarretan lantzea beharrezkoa ote den galdezka hasten dira eta abar. Gai horiek aztertzea irakasleen borondatearen esku bakarrik uztea asko eskatzea da, eta mundu guztia ez dago hura egiteko prest... curriculum batera bildu beharko genuke.»⁷⁴

Maila formalean sartzen ez bada, ezinezkoa da aniztasun afektibo-sexualari eta familiarri heldu zaiola esatea. Horri dagokionez, aniztasuna eskola-curriculumera esanbidez biltzeko ezinbestekotzat jotzen diren prozesuak erraztu egingo lituzkeela uste da.

Batetik, eduki horien sistematizazioa lortu nahi da, ezohiko gisa eta unean-unean bakarrik erabil ez daitezen. «Arazoa ageri arte» gaia ez dela zertan ukitu dioen ideia baztertu behar da. Esaldi hori maiz errepikatu da ebaluazioa egiterakoan, eta irakasleen kontzientziaziorik eza ematen du aditzera, arau heterosexistara egokitzen ez diren pertsonen oraindik ere aurre egin behar dieten zailtasunen inguruan.

Pixkana-pixkana, Euskal Hezkuntza Sistema gizartean nagusi den araudi heterosexualaren igoera ez izatea lortu behar da. Horren haritik, aniztasun afektibo-sexuala eta familiarra lehen hezkuntzatik landu behar da, nonahi ageri behar duen zeharkako irakasgai baten antzera. «Zeharkakotasuna oso kontzeptu abstraktua izaten da batzuetan, baina nire ustez, hezkuntzan, gai horiekin erraz asko lan daiteke zeharkakotasuna, zenbait irakasgaitan —marrazkian, matematikan eta abar— gizartearen mezuak etengabe ematen direlako.»⁷⁵ Zeharkakotasunean oinarritutako ikuspegiaren arabera, homosexualitatea edo lesbianismoa ez dira ezohikoak haurren bizitzan, beste hainbat istorio bezala egunero gerta daitezkeen gauzak baizik.

Ezinbestekotzat jotzen da zeharkako ikuspegiak aniztasun afektibo-sexualaren eta familiarren inguruko edukiak ikusezin bihurtzea edo baztertzeko ez ekartzea, sexu-hezkuntzaren esperientzia ugarietan gertatzen ari den bezala. Hori gerta ez dadin, batetik, material pedagogikoak sortu behar dira, eta, bestetik, irakasleen eskura prestakuntza egokia jarri behar da, zenbait gairi (genero-nortasuna, sexu-nortasuna eta aniztasun afektibo-sexualari buruzko jakintza) baldintza egokietan heltzeko aukera izan dezaten.

Irakasleek ez dute eredurik eta segurtasunik aniztasunaren (afektibo-sexuala, familiarra eta generoak) eremuan, eta horri amaiera eman behar zaio, beste zenbait eremutan egiten duten bezala konfiantzarekin eta ausardiarekin esku har dezaten. Horrek esan nahi du, besteak beste, irakasleak bereziki sentsibilizatu behar direla, gai horiei homosexualak, lesbianak edo transexualak direlako zuzenean inplikaturiko irakasleek bakarrik heldu behar dietelako ideia baztertzeko. Dagoeneko hainbat ikastetxetan hasi dira sentsibilizazio-ekimen hori aurrera eramaten, arauzko heterosexualitatearekin bat ez datozen sexualitateak aurkitu, onartu eta agerian uzteko prozesu pertsonalek ikasleentzat zenbaterainoko garrantzia izan dezaketen ulertu dutelako eta horrenbestez gaira hurbiltzeko erabakia hartu dutelako.

Ikastetxe bateko klaustro osoa aniztasunaren gaian inplikaturik senti dadin lortzeko, material pedagogiko egokiak jarri beharko lirateke irakasleen eskura, eta, hor ez ezik, irakasleen jakintza-maila igo beharko litzateke, haien eskura prestakuntza-ikastaro espezifikoak jarritz, gaur egun oraindik ere ematen ez diren, edo, etorkizuneko irakasleak hezterakoan, kontuan hartzen ez diren gaiak maneiatzerakoan eroso senti daitezen.

Ikastetxeetan ematen den hezkuntza afektibo-sexuala genitalitatean eta ugalketan baino ez da oinarritzen, eta horregatik gure ustez behar-beharrezkoa da eduki horiek berraztertu eta berriztatzea. Giza sexualitatearen ikuspegi murritzuegi horrek galarazi egiten du askotan aniztasun afektibo-sexualarekin eta generoen aniztasunarekin zerikusia duten edukiak lantzea.

74 II. elkarrizketa

75 VII. elkarrizketa

Aurreko hausnarketaren ildo beretik, ezinbestekotzat jotzen dugu Euskal Hezkuntza Sistemaren jardun-protokoloak gure gizartean oro har eta ikasleen artean bereziki ageri den aniztasun familiarrera egokitzea, hartara familia tradizionalaz —aitak, amak eta hurrek osaturikoa edo gizon eta emakume bananduek osaturiko bikotea— bestelako familia motek ere ordezkari izan daitezkeen eduki dezaten.

Elkarrizketetan, ikasgelan sexu-aniztasunean oinarritutako hezkuntza ematea errazten duten faktoreen inguruan galdetuta, irakasleek honako hauek aipatu dituzte: ikasgelako kideak eztabaidatzen ohituta egotea, metodo konstruktibista erabiltzea, ikastetxean ikasleen aniztasun handia egotea, materialak egiterakoan haurrak kontuan hartzea, materialak tutoretzan baliatzea edo ikastetxearen inplikazioa.

Gainera, ikasgelan sexu-aniztasuna lantzea oztopatzen duten zenbait faktore ere aipatu dituzte, hala nola gaia ukitzen duen materialik ez edukitzea, irakasleak ikasgelan aniztasuna landu beharraz kontzientziatuta ez egotea, «arazoa azaltzerakoan, orduan landuko dela» pentsatzea, interesik eta motibaziorik eza, ikastetxearen inplikaziorik eza, lan-karga eta material kopuru handiegia, aniztasuna lantzen baduzu besteek gay edo lesbiana zarela pentsatuko dutela pentsatzea, aniztasunaren gaia tabu izaki modu sistematikoan ez lantzea, eta sexualitatea kontzeptu genitalista eta ugaltzaile baten arabera lantzea.

Azkenik, bakarka jardunez eta gutxiengoa izanik ere, urtetik urtera aniztasun afektibo-sexuala eta familiarra ikasgeletara eramaten duten irakasleen ahaleginek oso balioespen positiboa lortu dute, haurrentzat benetako ereduak baitira, bitarteko hori gabe aniztasunaren errealitateak haientzat isilpean jarraituko lukeelako.

I. Eranskina**Oinarrizko galdeketerako galdesorta****Sexu aniztasuna eta familia berriak proiektuaren ebaluazioa**

Data:

Ikastetxearen izena:

Herria:

Ebaluazioari erantzun dion pertsona:

Galdesorta:

A) Jaso al duzue ikastetxean hezkuntza-materialak dituen poltsa?

Bai ☐

Ez ☐

A.1) Noiz jaso dituzue hezkuntza-materialak?

.....

B) Erabili al dira ikasgelan proiektuaren hezkuntza-materialak?

Bai ☐

Ez ☐

Erantzuna BAIEZKOA bada: Zer ziklotan erabili dira?

Guztietan ☐

Lehen zikloan ☐

Bigarren zikloan ☐

Hirugarren zikloan ☐

Erantzuna EZEZKOA bada: Zergatik ez dituzte erabili?

1)

2)

3)

C) Begi onez ikusi al dute irakasleek material horiek eskura edukitzea?

Bai ☐

Ez ☐

Zergatik?

1)

2)

3)

II. Eranskina**Eginiko elkarrizketak**

- I. elkarrizketa:** Donostiako ikastetxe pribatu bateko Lehen Hezkuntzako emakumezko irakasle bati egin zaio.
- II. elkarrizketa:** Portugaleteko ikastola bateko Lehen Hezkuntzako emakumezko irakasle bati egin zaio.
- III. elkarrizketa:** Getxoko LHI bateko gizonezko irakasle bati egin zaio.
- IV. elkarrizketa:** Donostiako ikastola bateko Lehen Hezkuntzako emakumezko irakasle bati egin zaio.
- V. elkarrizketa:** Iurreta-Durangoko ikastola bateko Lehen Hezkuntzako emakumezko hiri irakasleri egin zaie.
- VI. elkarrizketa:** Eskoriatzako LHI bateko emakumezko irakasle bati egin zaio.
- VII. elkarrizketa:** BERDINDU Gay, Lesbiana eta Transexualen Euskal Zerbitzuaren arduradunari egin zaio.
- VIII. elkarrizketa:** ALDARTE Gay, Lesbiana eta Transexualen Arretarako Zentroko zuzendariari eta «*Sexu-aniztasuna eta familia berriak*» gizarte-hezkuntzako Proiektuaren arduradunari egin zaie.